


# ttüpi-ttapa

1996ko martxoak 21 • 178. zenbakia

Elkarizketa

**POTTOKA:** «Udarako maketa berria aleri nahi dugu»



**7.000 IBILGAILU EGUNEAN  
ENDARLATSAKO ERREPIDE ESTUAN**



# Ornozko SAN MARTIN ESKOLA



## 1996-97 kurtsoa

**FORESTALA  
AGROPEKUARIA  
MEKANIKA  
SOLDADURA  
HOSTALARITZA**

**Bigarren  
kurtsoa**

### **Nork egin dezake?**

REM edo BUPeko bigarren kurtsoa egin dutenak. Eta gero, Iruñean plaza lortzeko segurtasuna izanena da (Agropekuaria, Mekanika, Forestala...) ikasteko.

## **GAUZA BERRIAK 1996-97 kurtsoan**

**AROTXA** (Soldadura, burni lanak, nekazal tresnen konpontzea...)

**HOSTALARITZA** (Sukaldari Laguntzailea)

**FORESTALA**

**Urte bat  
edo bi**

**Hasi:** 16 urtetan. (REM edo BUP utzi baduzu eta titulurik ez baduzu)

**Nola:** Egunero eta goizetan.

**Deitu 948 - 592006 telefonora**



## DATUAK.....

❖ *Pantxo Etxebehere da Pottoka kantariaren izena.*

❖ *Amaiurko Arluzekoborda baserrian sortu zen duela ia 30 urte.*

❖ *Talde eta musikari ezberdinen kantauak biltzen zituzten hiru disketan parte hartu du. Bakarka, 'La Revoluzione de la Tradizione' diska karrikaratu zuen duela urte batzuk.*

❖ *Musika ikasten hamasei urtetan hasi zen, gitarra batekin.*

❖ *Musika bere erritmoan egitea gustatzen zaio, urtean hiru-lau kanta gehienez.*

Pottoka:

# «Udarako bortz-sei kanturekin maketa atera nahi dugu»

**AZKEN DISKA PLAZARATU ZENETIK DENBORA DEXENTE PASATU DA. ZERTAN ARI DA POTTOKA?**


Orai etzanda nago... Grabatu ondotik, taldea montatzen saiatu nintzen. Gero berriz zerbait egiteko asmoa nuen, baina taldekideak ez ziren animatu eta hortan gelditu zen. Disketxeek ere ez dute nolana grabatzen, produktore bat behar duzu eta ixtorio...

**TALDE BERRIA OSATZEN ERE IBILIA ZARA**

Bai, kostatzen da baina, Elizondoko hiru lagun eta Sunbillako batekin osatu dugu azkenean: Asier eta Mikel gitarrekin, Aitor baxuan eta Jaime baterian. Pantxok kantatu egiten du bakarrik, gitarra utzi eta makila hartu behar dut. Udarako bortz-sei kantu bilduz maketa ateratzeko asmoa dugu, doinu tropikalekin eta... Beti gustatu izan zait dena nahastea, rocka, musika afrikarra...

**ORAIN BORTZ URTE MUSIKATIK BIZITZEA ONGI IKUSTEN ZENUELA ERRAN ZENIGUN. ESPERIENZIAK POSIBLE DELA ERAKUTSI DIZU?**

Denok dakigu ez dela bizitzen ahal. Euskal Herri mailan bizitzeko



kontaktu aunitz behar dira, bertze azpiegitura bat. Gainera bagara talde andana. Gehienak bizpahiru urtez modan egoten dira, baina gero ezinezkoa da. Jendeak "hau ezagutzen dugu—erraten du—, badakigu zer den" eta alde batera uzten dute.

**AZKEN 5-6 URTE-**

**OTAN EUSKAL MUSIKAREN EGOERAK HOBERA EDO TXARRERA EGIN DU?**

Nire ustez euskal musikaren egoera beti txarra izan da, diskak ateratzekoan batez ere. Ni, adibidez, orain 4-5 urte jendeak nobedade bezala hartu ninduen, arraro bezala. Bertze taldeak ere bi urtez goian ibiltzen dira, eta gero, nahiko ttepel. Eskuarekin kontatzeko modukoak dira goian mantentzen direnak.

**POTTOKAREN MUSIKA ZERTAN ALDATU DA?**

Aldaketarik batere ez, beti bezala desastre bat gitarra jotzen, kantatzen... Nire erritmoan segitzen dut kantauak egiten, urtean hiru edo lau gehienez. Arrunt alferra naiz.

**DISKA ATERA BERRITAN, AUNIZTAN ADITZEN ZIREN ZURE KONTZERTUAK. ORAIN ZER MODUZ?**

Urtean hogeita bat kantaldi egin dut beti, orduan ere ez nuen gehiago egin. Baina, hori bai, joan den urtean jautsi nintzen poliki.

» *Pottokaren musikan ez da aldaketarik izan, beti bezala segitzen dut: desastre bat gitarra jotzen, kantatzen... Hitzak akaso gehixeago lantzen ditut, adinagatik edo* »





EZKERRALDEKO ARGAZKIA ENDARLATSAKO ZUBITIK HURBIL ATERIA DA. EGUNERO 8.500 IBILGAILU BAINO GEHIAGO PASATZEN DIRA N-121-A ERREPIDEAREN ZATI HORRETAN, ETA ESKUALDE MAILAN, HAUXE DUGU TRAFIKORIK HAUNDIENA DUEN BIDE NAGUSIA.

GAINEAN DAGOEN ARGAZKIA GOIZUETA-LEITZA-EZKURRA BIDE-GURUTZEAN ATERIA DA, ETA ESKUIN ALDEAN DAGOENA, ZUBIETA ETA BEINTZA-LABAIEN ARTEAN.

# LESAKA - BEHOBIA ERREPIDEA: OBRA EGITEKO LEHENA IZATEA ESKATU DUTE UDALEK


**Orokorrean, eskualdeko errepideen egoera ez da batere ona. Arazo horrekin kezkatuak dabilta inguruko udalak, eta azkeneko hilabeteotan, behin baino gehiagotan eskatu diote Nafarroako Gobernuari afera honetan bere egitasmoak argitzea eta lehenbaiter behin betikoz finkatzea. Eskakizun guzi hоек, ordea, ez dute, oraingoz, inolako erantzun ofizialik hartu.**

TESTUA :  
JOXEMANUEL IRIGOIEN

**b**ehin baino gehiagotan, errepideei buruzko lehenbaiter eskatu diote zonako alkateek Nafarroako Gobernuari. Horren lekuko dira, errate baterako, gutti gora behera bi hilabeteetik behin egiten diren alkate-batzarretako aktak. 1995eko azaroaren 25eko aktan, adibidez, Baztan, Bortzirriak eta Malerreka

alkateak eta Javier Otano, Nafarroako Gobernuaren lehendakariaren artean izandako bileraren berri biltzen da. Bigarren puntuan, errepideen afera aipatzen da, eta «zona mailan Nafarroako Gobernuak egin gogo dituen obretan, lehenbaiter eskatu diote Obra Publikoetako kontseilariari. Bidenabar, alkateen iritziz obra publikoetan inbertsio gutti egiten direla eta, «121 A eta B errepideen arazoez gain, lehenbaiter hobere





*tzeko premia duten bertze hainbat obra ere» aipatzen dizkiote Nafarroako Gobernuari. Zehazki, «Arraioz, Narbarte, Elizondo eta Etxalar-ko saihesbideak» eta baita «Doneztebe-Leitza, Etxalar-Zugarramurdi-Baztan, Lesaka-Oiartzun eta bertzelako bidezatiak» ere.*

**GOBERNUTIK ERANTZUNIK EZ**

Geroztik hilabeteak pasatu badira ere, Nafarroako Gobernuak ez die erantzunik eman udalen eskakizunei. Eta gauzak horrela, otsailaren 10eko alkate-batzarrean, Obra Publikoetako kontseilariaren isiltasuna dela eta, alkateek euren «harridura» azpimarratzen dute, eta berriro ere «zona mailan Gobernuak egin gogo dituen obrak zehaztea eta lehentasunak markatzea» eskatzen dute.

**MUGAIRI-BEHOBIA EDO MUGAIRI-DANTXARINEA: ZEINEK DU LEHENTASUNA?**

Errepide nagusienei dagokionez, lehentasuna «121 A bide nagusiari» ematearen alde daude zonako alkateek, batez ere «Lesaka eta Behobia arteko bidezatiari». Eta hori azkartzeko, «Gipuzkoako Foru Aldundia eta Nafarroako Gobernuaren arteko bilerak egiteko» eskakizuna ere luzatu zieten zonako alkateek otsailaren 10eko batzarrean Nafarroako Gobernuari. Argi dago, beraz, alkateendako 121 A errepideak duela lehentasuna hobetze obrak egiterakoan.

**INFORMAZIO KONTRAJARRIAK**

Berriki argitaratu diren zenbait berriren arabera, ordea, badirudi Nafarroako Gobernuak Mugairi-Dantxarinea (121 B) errepidearen aldeko apostua egiten duela lehentasunak markatzerako-

an. Jesus Arlaban, Obra Publikoetako zuzendariak, adibidez, Nafarroa Europarekin lotzeko orduan, Lesaka-Behobia bidezatiak ez duela lehentasunik adierazi zion Diario Vasco-ri.

Dena dela, egoera nabarmenki nahaspilatzen ari da azken hilabete hauetan. Orain arte aipatutako guziaz gain, Eusko Alkartasunak eta EAJ-PNVk elkarri kritikatu egiten diote gai honen inguruan bakoitzak agertu duen jarraira.

Bertze maila batean, Txingudiren Aldeko Koordinadorkoek beldur dira 121 A errepidearen zabaltzea aipatzen denean, «ez ote dagoen horren atzetik Autobidea egiteko asmo izkuterik, eta Belateko maldetan gertatu den bezala, Bidasoa ibaiaren bazterrak ere gogorki kaltetuak suertatzea».

Nolanahi ere, modu guzietako informazio, adierazpen eta mezuak egon arren, oraindik ez dira ezagutzen publikoki eta ofizialki zeintzuk diren Nafarroako Errepide-Plan Nagusiaren xehetasunak gure errepideei dagokionez. ■

**Inbertsio falta salatu diote udalek Nafarroako Gobernuari**



Berriz ere, azpiegitura lanetan inbertsio guti egitearen salaketa jakinerazi diete Nafarroako Gobernuko agintariei zonako alkateek. Errepide nagusiak hobetzeko eskariarekin batera, bertze errepideetaz

ere ez ahazteko gogorarazten diote noizbehinka. Doneztebe-Leitza-Goizueta-Hernani lotzen duen bidea da guzi hoietan premiarik handiena duena egoera eta kaltetu kopurua kontutan hartuz.



EGE GORDAILUA: NA-1324/85  
FRANKEO ITUNDUA: 34/79  
TIRADA: 6.200 ALE

RGITARATZAILA: TTIPI-TTAPA KE  
HERRIKO ETXEO PLAZA, 1  
31780 BERA  
TFNOA: 63 11 88  
FAXA: 63 12 91

**zendaria:** Joxemanuel Iri-  
en. **Publizitatea:** Miren Kar-  
le Tolosa. **Erredakzioa:** Aitor  
ozena, Joxemanuel Irigoien.  
**ministrazioa:** Amaia Goia.  
**redakzio taldea:** Pello Ape-  
xeaa, Juainas Paul, Kristina  
an, Bittori Telletxea.  
**arriemaileak:** Joseba Azpiroz,  
eban Arozena, Juana Mari  
zar, Ainhoa Mutuberria, Iban  
si, Txema Aldabe, Pello Etxe-  
a, Txema Urroz, Patxi Otxan-  
ena, Ixabel Maia, Josune Etxe-  
ste, Pablo Mendiburu, Joseba  
rabide, Alizia Olaizola, Margari  
enike, Koro Irazoki, Mixel  
rendiain, Jacqueline, Elixabet  
ria, Garbiñe Maiz, Oskar  
operena, Alberto Sansiñena,  
lo Apezetxea, Aitor Arozena,  
stina Boan.

**laboratzaileak:** EHNE Nafa-  
a, Patxi Lasa, Mikel Bezunar-  
a, Joxe Javier Etxeberria,  
ntxa Zabala...

**rimategia:** Graficas Ona.  
**ti-ttapa** ez du bere gain har-  
n derrigorrez, aldizkarian adie-  
tako erranen eta erizien eran-  
kizunik.

**kunde Laguntzaileak:** Bera,  
tza, Goizueta, Areso, Baztan,  
Jazubi, Zugarramurdi eta  
rako udalak, Bortzirietako  
skara Mankomunitatea,  
errekako Zerbitzu Mankomu-  
tea, Zugarramurdiko Akelarre  
arte...

## GAURKOTASUNEN GAIA

### Espainiako Hauteskundearen analisia

#### Politikoki hagitz plurala da gure eskualdea



Fernando MIKELARENA  
Historiagilea. Bera.

Azkeneko hauteskundearen emaitzetaz gure zonaldean zer erran daiteke? Nire ustez, bi aspektu dira inportanteenak. Alde batetik, berriro egiaztatzen da gure gizartea politikoki hagitz plurala dela: lehen postuan kokatu den alderdi politikoak (PP) bakarrik botuen %26a eskuratu du eta laugarrenean geratu dena (PSOE) %18raino ailegatu da. Estatu mailako alderdiek (PP, PSOE eta IU) ia hautesleri erdiaren konfidantza irabazi dute eta alderdi abertzaleen (HB, EA eta PNV) kopurua haiena baino pixko bat tikiagoa izan da. Modu berean, bertze nafar eskualdeekin konparatuz, gurean PSOEren ezkerrean dauden bi alderdiek (HB eta IU) pisu nabarmena osatzen dute. Bertzalde, PP eta PSOEek hauteskunde autonomikoetan galtzen dituzten botoak orokorretan berreskuratzen dituzte bipolarizazio politikoaren ondorioz. EA eta CDNren kasuetan, ordea, kontrako prozesua somatzen da, Nafarroan botoa ematen dietenentzat beraien papera Madrilo parlamentuan argia ez delako.

#### Soziologoak logika sozialaren bila



Carlos VILCHES  
Soziologoa, irakaslea

TTIPI-TTAPAREN aurreko zenbait ageri diren grafikoek ederki erakusten dute partidu bakoitzak jasotako botoen eboluzioa. Horrela izan arren, ez dago ulertuko dituenik. Ez dago joera hoiengan analisi logikorik egingen duenik, eta are gutiago zientzia erabiliz horretarako. Sondeoen hutsegitearekin sortutako polemika dela eta, P. Bordieu soziologoaren 'El sondeo una ciencia sin sabio' izeneko artikulua irakurri dut. Beretzat, arazoaren erdigunea, botere guzietatik independientea izanzen zen zientzia soziala egitean datza. Egia da, halabaina, gainean dugun kontrol sozialaren aurrean, bada goela gure pribazitatea gordetzeko erreakziorik. Halere, 'Frantziako maiatzean' erabili zen esaldi batek zera zioen: *politiko guziak soziologoaren hesteekin zintzilikatuko ditugunetan, orduan, akabo gure arazoak!* Bortitzegia? Nerudaren postariak erranen luken bezala: **metaforak**. Argi dagoen gauza bakarra zera da: hemen akrazia ez dela mobil politikoa.

#### Tlebistak norenak, botoak harenak



Miguel ASIAÍN  
Hautzaina. Elizondo

Hauteskundeak berriro ere telebistak irabazi ditu. Nola ulertzen ahal da bertzelako PSOEek bi diputatu ateratzea Urralburu, Aragonen afera oraindik martxan zela eta? Nola posible da PPko buru batek Foruen kontra botatakoak kontutan hartu ez izana Nafarroan? Nola posible da jendearen gogoan ez izatea Buruhaundiak izan zuen kaskarra setiotsua? Nola posible da bertzelako, gurean horren tradizio guti izan duen Ezker Batuak diputatu bat ateratzea? Erantzuna, nonbait, telebistan dago. Estatuan nola, gurean hala. Gure eskualdean ere, erran zein talde atera den garaile herrian eta erranen dizut zein telebista kate ikusten den bertan: zonaldean gehien ikusten dena, doike, TV1-Telenavarra: Baztan, Doneztebe eta muga herriak horien adibide. ETB Gipuzkoaren mugakide diren udalerrietan, bai eta Malekorrerako barneko herriak. Ondarrean, TV2, Canal+, etabarrek Beran eta Igantzin dute ikuslegorik finena.

## ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

#### LESAKA:

- Egunero, arratsaldeko 4,30etatik 8etara.
- Asteazkenetan, goizeko 10etatik aitzinera ere bai.
- Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 6, Tfnoa: 63 74 04

#### IRUÑEA:

- Bulego Zentralean: ARTEKARI, S.L., Tfnoa: 17 55 40
- Non: Rioja Etorbidea 6, Atzekaldea Behean.

- Langile Autonomoak
- Nekazariak eta mendi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-kontratutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitortpenak
- Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bideragarritasun planak eta aurrekontuak



Aldizkari honek Nafarroako gobernuaren laguntza jasotzen du



## BOTA BERTSOA



**Jaione OTXANDORENA**  
Neurria: Zortziko haundia

*Nafarroako  
bertsolari  
txapelketaren  
faboritoa*

*Igande hontan finalerako urduritasun franko askori ziur nerbio maltzurrek barrena diote jango. Jakin nahiean faboritoa neretzat nor den izango pista hauekin asma ezazu izena ez dut errango.*

*Oso jatorra eta alaia laguntzeko prest dagona nahi duzunean adiskidea eta irakasle ona. Orain bi urte txapela bere buru gainean egona bertso munduan beti aurrerantz bultzatu nauen gizona.*

**Igantziako Udalean  
Elkarrik  
aurkezturiko  
eskaerari buruz**

TTIPI-TTAPAK otsailaren 22an bere 176. zenbakian Oskar Txoperena Jaunak idazten duen Igantziri dagokion orrialdean Elkarrik aurkezturiko mozioaren berri ematen zuen. Mozio horren bidez Elkarrik dirulaguntza eskatzen zion Udalari.

Artikulo horretan, Alkate jaunaren taldeko botoekin eta EAJ-PNVren abstentzioarekin mozioa onartu zela erraten da. gai honi buruz EAJ-PNV udal taldeko zinegotziek hurrengo argitzea nahi dugu:

1.- Dirua ematearekin ez gaude ados eta, batez ere, diru horrekin Igantzi herriak behar dituen bertze anitz gauza egitea premiazkoa denean.

2.- Oskar Txoperena jaunak idazten duena ez da egi osoa, udalbatza horretara HBTzale diren Alkate jaunaren taldeko bi zinegotzi ez ziren joan eta. Oso ausentzia susmagarria! Elkarriren mozioaren alde bozkatzu gero, HB bere talde politikoaren aurka bozkatzuko lukete zinegotzi hauek.

3.- Alkate jaunak, Juan Jose Txoperena jauna, ez zuen inolako neurririk hartu bere taldeko zinegotzien au-

## IRAKURLEAK MINTZO

sentzia zela eta, nahiz eta hauek inolako azalpenik ez eman. Alde batetik, ez zaio asko interesatzen joan ez ziren zinegotziak udalbatzan egotea, Alkate jauna, Oskar Txoperena bezala, Elkarrikidea delako.

JOSE JAVIER URTXEGI  
ENA: 72.657.185  
IGANTZIKO ZINEGOTZIA



**Oskar Txoperenak  
PNVko zinegotzietan  
erantzuna**

Jose Javier Urtxegi Huitzik, PNVko zinegotzien izenean, egunkari ezberdinetara bidalitako gutuna dela eta, honako hauxe adierazi nahi dut:

1. 176. aleko Igantziako kronikaren barrenean, Elkarrik Udalari egindako eskaerari buruz, pleno hartako aktak puntu horretaz dioena agertzen da hitzez-hitz. Baieztatu nahi izanez gero, hortxe daude kopiak ttipi-ttapako erredakzioan edo Igantziako Udaleko tabloian.

2. Elkarriko kide eta "Herri-Talde"zale izanik ere, ez dut inoiz nere eritzi pertsonalak defendatzeko erabili ttipi-ttaparen Igantziako kronika. Hor daude azkeneko 6 edo 7 urtetakoak ikusi nahi dituenarentzat.

3. Ez litzateke herriarentzat batere txarra, polemika antzu eta artifizialak asmatzen

pasatzen duten denbora, Herriko Etxean zerbait egiten pasatuko balute PNVko zinegotzietan. Oraingo bideetik segitzekotan, errespetatu ditzatela guttienez, Herriko Etxetik kanpoko lanetan ari direnak.

OSKAR TXOPERENA.  
IGANTZIKO BERRIEMAILEA



**Suhiltzaile  
boluntarioei**

Jakin badakit, beste tokitan bezala Leitzaan ere bolondres edo boluntarioak izan badirela, eta denek, herriaren merezimendua behar dutela. Dena den, gaurko honetan azkeneko aste hauetan ekimen ezberdinak burutu direlako suhiltzaileei eskeini nahi diet eskerronik zintzoena herriaren izenean. Gaia gehiegi ezagutzen ez banuen ere, aspaldi honetan halabeharrez eta Iruñean ospatu diren aipaturiko ekimenak direla medio (suhiltzaileen ihardunaldiak, suhiltzaileen eguna...), sakonago aztertu eta bizi izan dut, eta horregatik, toki honetatik ere, beraiei, zuei, egiten duzuen lanagatik, azaltzen duzuen dohaintasuna eta duintasunagatik eskerrak eta animo herriaren izenean.

MIKEL ILARREGI  
LEITZAKO ALKATEA



**ZIALDO  
OSTAIA**

LESAKA

**OKANE**

**HARATEGIA • URDAITEGIA**

Kanttonberri 4, Tfnoa: 63 00 18 • BERA

**LANCHAS**

- Parketak - Tarimak
- Kutxillatzea eta bernizatzeak
- Estaldura orokorrak

Bera ☎ 630735 • IRUN ☎ (943) 622305



**ETXANDI  
TXOKO  
erretegia**


**Bazkari, afari eta  
gosariak**

**ITUREN**  
Tfnoa: 45 04 91



## PRENTSATIK BILDUTAKOAK

## 11 GALDERA LABUR



Diario Noticias 96-III-12

«Lehenbaitlehen ekin behar zaio errekorriari, horretarako sasoia ezin baita hilabete luzez mantendu»

**Mikel SARALEGI**

Leitzako harrijasotzailea  
Diario Noticias 96-III-12

joikatu eta irabazi  
genuen partidua izan  
zen»

**Estibaliz Agirre**

Berako ikaslea. «Ibilbide  
kulturalak Nafarroan zehar»  
sariketaren irabazlea  
Diario Noticias 96-III-14

«Nafarroa erdialdera egindako bidaiak da egin ditudan eskurtsioen artean gehien gustatu zaidana. Ez nuen zonalde hori ezagutzen eta gehien gustatu zitzaidana bertan

◆ **Zure lagun minari emanen zenioken kontseilua?**

❖ Bizitzan ahal duena egiten saiatzea.

◆ **Uda honetan bidaiatzeko lekuren bat?**

❖ Toki ezezagun batetara.

◆ **Besta egitekotan, diskoteka edo ostatu normala?**

❖ Ostatu normala, diskotekak ez zaizkit gustatzen.

◆ **Lana eta ikasketak probatu dituzu. Bietan zein nahiago?**

❖ Ez bat eta ez bertze, eta bietan bat, ikasi.

◆ **Heldua izatean, zer izan nahi duzu?**

❖ Zoriontsua.

◆ **Hiria edo herria nahiago?**

❖ Herri tiki batean.

◆ **Gidatzeko autoren bat?**

❖ Denak gustatzen zaizkit, abiadura haundikoak batez ere.

◆ **Arazo bat duzunean, norengana joaten zara laguntza bila?**

❖ Saiatzen naiz arazoa neronek moldatzen. Ezin bada moldatu, lagunengana jotzen dut.

◆ **Zer aldatuko zenuke telebistan?**

❖ Dena, noizbait bederen, egia den bezalakoa azaltzea nahi nuke.

◆ **Eskola garaiko oroimen on eta txar bana?**

❖ Ona piperrak eta txarra faltak justifikatu beharra.

◆ **Nori diozu beldurra?**

❖ Uniformea daramaten guztiei.



**Mirari LEIZA**  
Arantzako gaztea

**BOTXO  
ostatua**

Tfnoa: 63 00 52  
Zalain Auzoa, BERA



**J. RAMOS**

Zolak akutxilatuta eta  
barnizatzen dittut

© 631342 BERA • © 637172 LESAKA

**ttipi-ttapa**

Gida Komertziala 96

Ez galdu sekulan  
begi bistatik.  
Den-dena  
eskeintzen dizu!



**E D A R I A K**



**MANUEL TABERNA S.L.**

Bidasoa K / 82 - 31780 BERA (Nafarroa)  
Tel.- Fax: 948. 63 10 27

**PIKABEA**  
*pinturak*

Lehen Molinero  
izandakoak

**Etxe barneko hezetasun eta kondentsazio  
arazoak moldatuko dizkizugu**

- Fatxadak
- Barne dekorazioa
- Pintura orokorrean

Izpoz 8 • ☎ 630240 - 631495 • **BERA**



**Bera**

## Zaharretxe berriaren lanak dexente aitzinduak daude

Bukatu eta bertan bizi ahal izateko baimena eman bezain laister, egoitza berrira aldatuko dituzte adinekoak

KRISTINA BOAN

Uste baino bizkorrago burutzen ari dira Zaharretxe berriko lanak. Hasieran ekainerako bukatzeak baziren ere, alkatearen erranetan "bi hilabete aitzinetik gabiltza eta akaso apirilerako akabatuak izanen dira lanak". Momentu honetan, egoitza berria mobilizatzeko zazpi edo zortzi eskaintza hartu dituzte. "Horiek aztertu, Nafarroako Gobernura ibidali eta subentziora eskatu" izanen dira hurrengo pausuak.

Guzi hau bizkortu nahi da eta lehenbailehen adineko jendea etxe berrian bizitzen paratu. "Lanak bukatuta eta bertan bizi ahal izateko baimena lortzean, biharamonean bertan egoitza berrian izanen dira adintuak".

### Gure Txokoa - Beti Gazte

Futbol partidu soilak baino zerbait gehiago bizituko da igande honetan Matzada futbol zelaian. Goizean beterranoen arteko partidua jokatu da, eta arratsaldeko partiduan, bi herrietako txarangen doinuak ez dute hutsik eginen.



Zaharretxe lanak apirilerako akabatuak egon daitezke Arg.: Karmele

## Txotxongillo taldearen "Erreka Mari" lana larunbat honetan Kultur Etxean

Martxoaren 23an, arratsaldeko 5.30etan Txotxongillo taldearen emanaldia burutuko da Kultur Etxean. Enkarni Genua eta Manolo Gomezek osatzen dute Txotxongillo taldea azken 25 urteotan eta larunbateko emanaldian "Erreka Mari", Euskal Herrian gelditzen den azken lamiaren istorioa aurkeztuko dute.

Dagoeneko 20 ikuskizun ezberdin prestatuak dituzte eta 1.500 emanalditik goiti eskainiak. Txotxon-

Erreka Mari bezalako antzeslanaz gain, 17 ipuin-liburu eta 21 diska plazaratuak ditu Txotxongillo taldeak



gillo taldearen kultur jariora ez da horretan akabatzen, dagoeneko 17 ipuin-liburu eta

21 diska, azkena berriki argitaratutako "25 urte zuekin" plazaratuak baitituzte.

*ttipi-flash*

### Labiaga ikastolak

200.000 pezetako dirulaguntza hartu du Nafarroako Gobernuko Hezkuntza sailatik, irakaslegoak berrikuntza proiektuak egiteko. Zehazki, bi dira ehuna mila pezetekin lagunduko diren proiektuak: "Zirika" eta "Dramatizazioak hezkuntza erreformarekin lortzen duen garrantzia, hezkuntza artistikoa arloaren atal berritzaile bezala".

### Bertsu Astea

garatu da joan den astean, igande honetan Beran burutu behar zen Nafarroako bertsolari txapelketaren finalerdia zela eta. Bertsolaritzari buruzko erakusketaz gain, ortzegunean, Txapelketak, zer ematen dio eta zer kentzen dio bertsolaritzari gaiaren inguruan solasean aritu ziren Egaña eta Estitxu Arozena. Igandeko saioa baino lehen Gure Txokoa bazkaria izan zen.

**GANIX**  
Tailerrak

IBILGAILUEN MEKANIKA  
ETA ELEKTRIZITATEA  
FIAT Zerbitzua  
Iturlandeta 9 • ☎ 630669 • BERA



**BLANCO ANAIK, S.L.**

MARMOL eta GRANITOAK

Sukalde entzimerak • Bainua • Hilerrria

BERA - Kanttonberri 4, ☎ 631052

IRUN-(943) 631084 • LEZO(943) 529390



Altzate, 19 • 630786 • BERA



**Lesaka**

# 371 milioi pezetakoa izanen da aurtengo udal aurrekontua

Behin behineko onarpena eman zion batzarreak, PNV eta EAren aldeko botuekin eta HBren kontrakoekin

**AITOR AROZENA**

PNV eta EAren aldeko botuekin eta HBren kontrakoekin 371.737.500 pezetako udal aurrekontuak behin-behineko onarpena jaso zuen.

Andra Mari Erresidentziakoa, bere aldetik, 36.050.000 pezetakoa izanen da.

**HB: «AZTERTZEKO DENBORA GUTTI»**

HBren ustez, udal taldeek denbora gutti izan dute aurrekontua ikusteko eta zenbait aldaketa proposatu zituen enplegu, etxebizitza, euskara eta herriekiko nazioarteko elkartasuna arloetan. Kultur Etxearen beharra ere azpimarratu zuten. Alkateak, puntuz-puntu erantzun zuen. Enpleguari dagokionez, Herriko Etxearen eginbeharra lanpostuak sortzea dela erran zuen eta "Lesakakoak hamabi sortu ditu Zahar Etxean". Kultur Etxea "amets zaharra" dela erran zuen, "baina aurtengoan futbol zelaiaren aldeko apostu gogorra egin dugu".

**100 MILIOI FUTBOL ZELAIRAKO**

Futbol zelai berriarena da, hain zuzen, udalak aurrikusi duen



Adin guztietako 400 laisterkalari baino gehiagok parte hartuko dute Lesakako Herri Laisterketaren IV. edizioan

inbertsiorik haundiena, 100 milioikoa. Frontoia moldatzeko eta bonberoen egoitza egiteko 15na milioi gastatuko dira. Bittiria karrikako urbanizazioa eta Nabazera ura banatzeko lanak seina milioi t'erdi gostako da. Guztira, 154.630.000 pezetako inbertsioak egingen dira. Bertzelako gastu arruntak 204 milioi t'erdikoak izanen dira aurten.

Diru sarrerei dagokienez, 225 milioi, sarrera arruntak izanen dira, eta 51 milioi t'erdi, subentzio ezberdinetan ailegatuko dira.

## Lesakako IV. Herri Laisterketa martxoaren 31n burutuko da

Igande honetan zortzi, martxoaren 31n, burutuko da Lesakako IV. Herri Laisterketa, Batzoki elkarteak, Caja Rural de Navarraren babesarekin eta Lesakako Udalaren eta zenbait komertzioen laguntzarekin antolatua.

Proba goizeko 10etan hasiko da aurrebenjamin mailarekin, eta proba nagusia, 12,30etan abiatuko da.

Bitarte horretan, adin, sexu eta maila guztietako 400 korrikalaritik goiti lehiatu-

ko dira, antolatzaileen aurrikuspenen arabera. Gabriel Garin, Rafa Maritxalar edo Oskar Iriarte bezalako atleta federatuekin batera, Bortziriak, Baztan, Irun eta Hondarribiako ikastetxeetatik autobusak etorriko omen dira, dagoeneko aski ezaguna egiten ari den proba honetan parte hartzeko asmoarekin. Ttikienek 500 metro egin beharko dituzte eta proba nagusian parte hartzen dutenek, berriz, zortzi kilometro.

*ttipi-flash*

### Kontzertua Kattu ostatuan

Ortziral honetan, martxoak 22, gaueko 11,30etan bere bakarkako bigarren diska, "Gitarra bat nintzen" izenekoa aurkeztuko du Javier Muguruza musikariak Kattun.

### Kartzela zigorra

Hogeitazortzina urteko kartzela zigorra jaso dute Iñaki Fagoaga eta Patrizio Goienezte.

### Salvador Iantzi

da Beti Gazte elkartearen lehendakari berria. Salvadorrek azken bortz urteotan lehendakaria izan den Jose Emilio del Rionen lekua hartuko du. Fidel Ordoki eta Koldo Erkizia izanen dira lehendakariordeak. Elkarrearen aurrekontua 7.095.000 pezetakoa izanen da. Joan den urteko kontuak, berriz, 135.676 pezetako defizitarekin itxi ziren.

**Deñe**  
LENTZERIA  
MERTZERIA  
Tfnoa.: 62 75 14  
Behoko Plaza 8, LESAKA

**BEREAU**  
jatetxea • Hotela  
Lesakako Bidegurutzean  
Tfnoa: 63 73 82 - LESAKA

**BEKO ERROIA**  
Lore eta landareak  
Frain auzoa Tfnoa: 63 78 26  
LESAKA





# Berako zaharretxe berriko gastuetan zenbat ordaindu aztertzen ari da Udala

Bertako zaharretxea ere kontutan hartu behar denez gero

PELLO ETA ALBERTO

Berako Zaharretxe berria, lehengo baino haundiagoa, aurren bukatu eta irekiko da. Zaharretxe berria haundiagoa izatearen arrazoia argia da: Berako zaharrentzat ezezik bertze hiru herriko zaharrentzako ere pentsatua baitago, Arantza, Etxalar eta Igantzikoentzako, alegia. Etxearen kostu zatirik haundiena Nafar Gobernuak eta Cederna-Garalurrek ordainduko badute ere, -189 milioitik 155-, bertze 34 milioien ordainketa lau herrien artean banatzea proposatu dute Beratik, herrien bizilagunen arabera. Herri guzietan, ordea, ez dute partehar-



Larraburuko partxis txapelketan aritu eta sarituak

terako berdina zaharretxe horretako zerbitzu eta probetxamenduan. Etxea edozein zaharrentzako prestatua izanagatik, baliatzen direnentzako nahiz ezinduentzako, alegia, Etxalarrek, errate ba-

terako, badu herrian etxebizitza bere buruz baliatzen direnentzat, herriaren gain dagoena. Berara, orduan, ezinduak bakarrik jonen dira, eta, ondorioz, ordaindu beharrrak tikiagoa iduri du

beharko lukeela izan. Hori da, momentuz, Udalak pentsatzen duena. Nahiz eta oraindik gai honetaz solasketa franko egingen dela uste duen, eta horretarako prest dagoen, noski.

## 1996ko aurrekontua...

89 milioi Ptakoa da, eta hasierako onespena eman dio Udalak, nahiz eta ez izan denen adostasuna.

## Haizeak botatako arbolengatik dirulaguntzarik ez

Otsaileko haize boladak arbola aunitz hautsi edo bota ditu. Gobernuaren dirulaguntza galdetu du Udalak, kalteak arintzeko edo, baina ez du iduri Gobernu horretarako prest dagoenik. Ez da esperantza haundiegirik, behinpehin. Dena den, eroritakoa ahalik eta ongien probeteko, zuretarako eta su-egurretarako lehenbaitlehen bereiztea erabaki du.

**ZALAIN**  
J A T E T X E A  
EGUNEKO MENUA ETA KARTA

Zalain Auzoa  
☎ 63 11 06  
**BERA**

**Boda eta banketeak ematen dira**

**LAPDEQU**  
MICRO BUS 17 P  
**CAP**

**24 ORDUKO BUS ZERBITZUA**

- 17 jarlekuko mikrobusa
- 55 jarlekuko autobusa
- Afari, despedida, sagardotegietara joateko

☎ (943) 300139 • 908.671469 • ANDOAIN

**ORBELA**  
gimnasioa  
Squash • muskulazioa • sauna  
☎ 637950 • LESAKA

**HERRIKO OSTATUA**  
**Jatetxea**  
**SAGARDOTEGI MENUA**  
*Tronizoa sagardoan egina  
Bakailu Tortilla  
Idi Truleta  
Gasna, menbrilloa eta intraurrak  
Nahi den sagardo guztia*  
**4.000 pezeta bikotea**

☎ 635290  
**ETXALAR**

**EROSLE**  
LESAKA

Kalitate-prezio arteko orekarik hoberena

**Frexkuena zugandik hurbilago**

Bittiria, 67 - ☎ 637264

**XATURET XEA**  
J A T E T X E A  
Tfnoa: 63 70 27 LESAKA





# Eskolako haurrek primeran pasatu dute Isaban

Parrokiko lokala moldatu da behar duten herritarrek erabili ahal izateko

OSKAR TXOPERENA

## Parrokiko lokala

Orain arte Biltoki Ttikiren eskuetan zegoen apaizaren etxe-ko lokala, moldatu eta moble berriz bete du Parrokiak. Lehengo eguneko mezan apaizak erran zuenez, edozein herritarrek erabiltzeko moduko lekua izatea nahi da -gazte-ek ere bai, noski-, bilerak egiteko edo behar den guzira.

## Ebasketak

Zenbait ebasketak izan omen dira azken egunotan Igantzi inguruan, San Juan bisitatzen zeudenen ko-txeetan egindakoa bertzeak bertze.



Sari banaketa eta afariarekin akautu zen aurtengo mus eta partxis lehiaketa ere, Junta berriak prestatutako lehendabiziko ekitaldian. Bertan, Juan Ramon Retegi eta Marino Zelaietak musean, eta Rosa Sein eta Gurutze Iribarren partxisean eskuratu zituzten txapeldunen sariak. Ondoan dituzten guzi horiek, bigarren edo hirugarren gelditzearekin konformatu behar

Arg.: Oskar TXOPERENA

## Eskolakoak Isaban eskiatzen

Eskolako neska-mutiko koxkorrenen

primeran pasatu dute Isaban. Esperientzia aberasgarria izan dute, noski, eskiatzen ikasteaz gain, elkarre-

kin ederki pasatu ahal izan baitute. Horren erakusgarri, Imanol Retegi, bertan egondako baten erranak.

Perrosas



Imanol Retegi Etxeberria

**Zer moduz pasatu duzue elurretan?**  
Nik behinpein hagitz ongi, elurra aunitz gustatzen zait eta. Ez duzue, orduan, aspertzeko denborarik izan.

Ezta pentsatu ere. Goiz gehiena ski ikastaroan pasatzen genuen, eta arratsaldea berriz, herri kirolean eta Isaba inguruak ezagutzen.

**Zer moduz eskiatzen?**

Bi lehendabiziko egunak lurrean, baina gero, nahiko dextente.

**IRU BIDE**  
ERRETEGIA

Tfnoa: 637127  
LESAKA

**INAXIO JANARIDENDA**

Igandetan 9etatik 13etara irekia  
ASTERO eskeintza bereziak

Plaza Zaharra, Tfnoa: 637059 - LESAKA

**LABEZAR**

© 631076 • BERA

**koxkonta**

**Sagardotegia zabalik**

Deitu erreserbak egiteko

Otsango auzoa, Tfnoak: 627503 / 627519 • LESAKA

**SAROB**

**okindegia**

**SANDERS Pentsuak**

Eztegara 41, Tfnoa: 63 08 99 - BERA

**GRUPO ZURICH**

**ASEGURO OROKORRAK**

Itzea, 4 — BERA — © 63 07 63





# Iñauterietako mozorroek jaialdia antolatu dute martxoaren 23rako

Mezaren ondotik, pilota partiduak, afaria Aterpen eta dantzaldia 'Cristina eta Amaia' taldearekin

GARBIÑE ETA ELIXABET

Datorren martxoaren 23an, Arantzako mozorroek jaialdi bat antolatuko dute. Besta honen helburua orain arteko ñauterietan izan diren mozorro guztiak biltzea izanen litzateke. Ospakizuna arratsaldean hasiko da honako egitarau honekin: 6,30etan meza nagusia. 7,30etan pilota partidua jokatu da, aurtengo ñauterietan mozorro izan direnak eta lehenagoko urteetan izandakoen artean. 9etan afaria Aterpe erretegian eta afalondoan, giroa alaitu eta gero, gauerdia aldera, dantzaldia izanen da plazan Cristina eta Amaia taldearekin. Bertzalde, antolatzaiz-



Mozorroak dantzan orain dela urte batzuetako argazkietan. Eskuinekoa 1950 ingurukoa da eta ezkerrekoa berrixegoa



leek ohar bat jarri dute beraien jaialdian, honako hau erranez: "mozorroek emazte eta emaztegaririk ekarri nahi badute afaltzera, mahai ezberdinetan afaldu beharko dute, nahiz eta dantzaldian arrimatzea uzten den".

**Arbol aldatzea**  
Martxoaren 9an

Herriko Etxeak antolatutako arbol aldatzea egin zen. Adierazi digutenez, bortzehun pago bederen aldatu zituzten. Pago planta hauek Soranotik ekarri zituzten, han soberan baitzeuden, eta Soranoko bordaren gainean dagoen lur eremu soilduan paratu dituzte.

## Agesta-Errandonea kanporatuak

Ander Agesta eta Rafael Errandonea Arantzako pilotari gazteek Nafarroako Nereguko Txapelketan parte hartu zuten jubenil mailan, finalerdietara ailegatzea lortu zuten, nahiz eta bertan galdu. Finalerdietako lehenengo partidua Lizarran jokatu zuten, 22-

19 irabaziz. Itzulerako partidua berriz, Labriten jokatu zuten eta 19-22 galdu zuten. Beraz berdin gelditu ziren, baina beraien kontrarioak gazteagoak zirenez, haiek pasatu ziren finalera.

Nahiz eta ongi jokatu kanporatuak izan ziren.



Irungo errepeidea - BERA - Tel. 948-631317

HARRI NATURALA

ATERATZEA eta LANTZEA

Antzinaldeak	Tximiniak
Angeluak	Erlaizak
Orma antzinak	Moldurak
Leihoak	Zokaloak
Ateak	Hilarriak
Arkuak	Marrazkiak
Pilareak	

'Abujardadoa' Mazizoa  
Zahar antzekoa Txaparran

ZINTARRIAK  
ADOKINAK  
ZOLAK



**ALBERGIA  
JATETXEA**

© 634179  
ARANTZA



Albistur, 39-K • 627542 • LESAKA

bitxikeriak • opariak • enmarkazioak



**BIDASOA**

**OPTIKA**

**OPTIKO  
OPTOMETRISTAK**

Nafarroa Ibilbidea, 21  
Tfnoa. (943) 63 01 93  
IRUN

- IKUSMENAREN AZTERKETA OROKORRA
- UKIPEN LENTEEN ADAPTAZIOA
- HAURRENTZAKO IKUSMEN TERAPIA
  - Estrabismoa
  - Begi Alferrak

**Centro Cien  
komertzioa**

- Opari artikuluak (ezkontzetarako detaileak)
- Sukalderako tresnak
- Garbiketa produktuak
- Erramintak
- Jostailuak, etab...

Kanttonberri 8, (Lehen Goxoki)  
BERA





# Martxoaren 22tik 24ra Kultur Astebukaera burutuko da

Antzakaitz Kultur Taldeak eta Ulibeltzak elkarteak dira ekitaldi horien antolatzaileak

IXABEL ETA JOSUNE

Sortu berria den Antzakaitz Kultur Taldeak eta Ulibeltzak elkarteak, ekitaldiz betetako Kultur Astebukaera antolatu dute aste ondar honetarako.

Egitaraua ortziralean, martxoak 22, hasiko da, arratseko 8,30etan herrian barrera Sunbillako txarangarekin eginen den karrikapasarekin.

Gaueko 9etan bertso afaria izanen da Ulibeltzak elkartearen, Xebastian Lizaso eta Iñaki Murua bertsolariekin. Ondoren txaranga ibiliko da berriro.

Larunbatean, arratsaldeko 5etan eguraldiari buruzko solasaldia emanen du Pello



1987tik hasi eta 1996ra bitarteko inauterietako argazkien erakusketa izanen da ortziraletik igandera Ulibeltzak elkartearen

Artxiboa

Zabala eguraldi gizonak Ulibeltzak elkartearen. Musika ere izanen da larunbatean, gaueko 12etan reggae-mexikar besta hasiko baita frontoian, "Igua-

na y los Jumiles" eta "Addis Abeba" taldeekin. Sarrera 500 pezetakoa izanen da eta tekila bat dohainik hartzeko aukera izanen da.

Igandean, meza ondotik mus txapelketa jokatu da Ulibeltzak elkartearen. Arratsaldeko 4etan haurren arteko marrazki lehiaketa izanen da fron-

toiko arboladian, "Herriko txokorik politena" gaia hartuz. Arratsaldeko 6etan haurrentzako antzerkia izanen da. 'Shanbu' taldeak, "Gure lurraldeko kondairak" antzeslana eskainiko du.

Ekitaldi hauetaz gain, aste ondar guztian Sunbillako inauterietako urtez urteko argazki erakusketa zabalik egonen da Ulibeltzak elkartearen.

## Juantxekoborda eta Arrutelako bideak

Arrutela eta Juan txekoborda baserrieta-rako bideak egiteko 27.600.000 pezetako inbertsioa eginen du Nafarroako Gobernuak, Toki Azpiegiturietako obren plangintzan sartu ondotik.



### Esker Onak • Urtemugak • Eskelak ttipi-ttapak

eskelak, urteurrenak edo esker onak agertzeko toki bat eskeintzen dizu.

Deitu gure telefonora: ☎ 63 11 88



### SANTAMARIA Jatetxea

Obrak irauten duten bitartean sarrera gibealeko aidetik.  
Asteburuetan itxita dugu

Nagusia 30, Tf.: 45 00 43 - DONEZTEBE



## TELLETXEA MOBLEAK

### Moble erakusketa haundia

- Edozein klase eta neurriko altzariak egiten ditugu.
- Haritz, gereziondo, gaztainondo eta pinuzkoak.
- Armario enpotratuak, ate korredera edo normalakin

Rosa Seminario z/g Tfnoa: 45 02 58 - DONEZTEBE



**Doneztebe**

# Mediku euskalduna kontratatatu da legeak dioena betez

AFAPNA, CCOO, ELA eta LAB sindikatuek mediku erdalduna kontratatzearen kontrako postura agertu zuten

**TXEMA ALDABE**

Historia pixko bat eginez, hasieran Doneztebe eta Bertizaran sinadura bilketa egin zen Jose M<sup>a</sup> Lana medikuari kontratua berritzearen alde. Bi udaletan mozioak onartu eta ordezkariak Iruñera jo zuten berriz, bertze kontratu mota batekin berritzea lortu nahirik. Baina hori gauzatzeko bi arazo zeuden, bata euskalduna behar zuela eta bigarrena, 3 urtez kontratatua egon ondotik, plaza hori bertze batek bete behar zuela.

Osasunbideako LAB sindikatuak horixe aurkeztu zuen sindikatu arteko bileran eta sindikatu guzietan onartu ondotik, Osasun Kontseilariak bertze mediku bat izendatzeko erabakia hartu zuen, eskatzen ziren hiru baldintzak beteko zituen; familia-medikua izatea, bertan bizikoa zena eta euskalduna. Kontxi Sanchez medi-



Martxoaren 12an afera honetan hitzegin zen Herriko Etxean

Argazkia: Josu INZIARTE

kua izendatu zuen, lehen Leitzaan aritua eta martxoaren 7an hasi zen lanean Donezteben.

**BIGARREN SINADURA BILKETA**

Erabaki honek, aferra eta herritarren artean zeuden gorabeherak moldatu beharrean, okerrera jo zuen eta bigarren sinadura bilketari ekin zioten. Aldi

honetan, Herriko Etxeko EAko zinegotziak ez zirenek mugitua.

Langarra euskara taldeak ere, bere idatzia plazaratu zuen, legea betez mediku euskalduna izendatu behar zela adieraziz. Medikuek berak ere egin zuen bertze idatzi bat, "ez zuela deus euskararen kontra" erranez, "herritarrek mugitu direla eta ez de-

la bera izan Donezteben gelditzearen alde arituedena" eta "etorri den mediku berriari harrera ona egitea" eskatuz. Langarrak bigarren idatzi ateri zuen, Osasunbideako irizpidea onartuz eta hori betetzea eskatuz, eta "guk garbi ikusi dugu mediku euskalduna nahi dugula, aukera bada goela eta tenoria ere bai" gaineratuz.

**BERRIZ IRUÑEARA BIDAIA**

Honen ondorioz izugarriko nahasketa dago herrian, bakoitzak bere arrazoia paratzen duelarik. Gauzak horrela, Doneztebeko Udalak martxoaren 12an izandako plenoan Osasunbideak hartutako azkeneko erabakiaren berri eman zen eta Udalak ahobatez bertze idatzi bat onartu zuen. Puntu batean, "Jose Mari medikuak hemen segitzearen alde, plaza fijo atera arte" ageri da. Hori lortu nahian berriro ere Iruñeara joko dute Bertizarana eta Doneztebeko udal eta sinatu duten herritarren ordezkariak. "Egoera honek ez dio la onik ekarri herriari eta bereziki eri dagoenari" eta "hau dena ikusirik mediku berriaren egoera ez dela batere errexa" aipatzen da udalak onartutako idatziaren bertze puntuetan.

**IBARROLA**

**HAURRENDAKO ARROPA**

**MERTZERIA**

Parrokia 6  
Tfnoa: 45 04 63  
**DONEZTEBE**



**GALLINA BLANCA PURINA**

Gallina Blanca Purinak Bartzan-Malerreka-Bortzirietarako pentsu banaketarako eta bertze zerbitzuak eskaintzeko zentrua irekitzen du Doneztebeko Aparan poligono berrian

*Inaugurazioa martxoaren 30ean, goizeko 11,30etan izanen da. Ekitaldi horretara nekazari eta abeltzain guztiak konbidatuak daude.*

*Edozein kontsultarako deitu 451845 2ra*

**DONEZTEBE AKADEMIA**

**Klaseak ematen dira**

- OHO, FP, BUP, REM
- Matematika, fisika, frantsesa...
- Mekanografia

*Badakizu horren beharra dugula*

Parrokia 10, 3. • 450326  
**DONEZTEBE**



**Malerreka**

# Zaborraren birziklapena bultzatzeko bilera Juansenean

Martxoaren 29an burutuko da, arratsaldeko 7,30etan

TTIPI-TTAPA

Behinpin taldeak deituta, eskualdeko zaborraren birziklapena bultzatzeko asmoz, bilera bat burutuko da datorren ortziralean, martxoak 29, arratsaldeko 7,30etatik aitzinera Doneztebeko Juansenea etxean.

“Eremuko zaborrekin zer?” izenburupean duela bizpahiru hilabete egin ziren inizatiba ezberdinen segida izan nahi du bilera honek eta hori dela eta, *“gai honetan interesa duen jende guztiaren partehartzea beharrezkoa dela”* azpimarratu dute Behinpin taldeak. Gogoratuko denez, gai honen inguruan mahaingurua burutu zen eta aldizkaritxo bat plazaratu zen, eskualdearen egoera aztertuz.



‘Eremuko Zaborrekin zer?’ izenburuarekin egindako ekitaldiei segida eman nahi die Behinpin taldeak

Artxiboa

## Arkupeak elkarteko Gimnasiaren Besta apirilaren 11n ospatuko da Iruñean

Arkupeak elkarteak urtero antolatzen duen gimnasiaren besta apirilaren 11n ospatuko da Iruñean. Goizean, gimnasia erakustal-

diaren ondotik, bazkaria izanen dute eta eguna akitzeko, dantzaldia. Bueltan berriz, arratsaldeko 7,30ak aldera abiatuko dira.

Egun honetarako izena eman nahi dutenek lehenbaitlehen mugitu beharko dute, martxoaren 22an akitzen baita epea.

## Kukumiku lehiaketa

Bigarren urtez, Kukumiku lehiaketa antolatu du Langarra taldeak. Bigarren edizioa maiatzean hasiko da, baina izen ematea apirilean zehar egingen da Malerrekako eskola ezberdinetan barna. Herri ezberdinetan burutuko da eta bertan parte hartuko duten neska-mutikoei 12 eta 14 urte artean izan behar dute.

## Zuhaitz probetxamendua

Mendaurko urtegi inguruko zenbait zuhaitz haizeak bota dituela eta, usteldu baino lehenago, hauen aprobetxamendurako eskariak egingen ahal dira Iturengo Herriko Etxean. Argibideak eta xehetasunak bertan daude.

## Nafarroako Gobernuak herrietako azpiegitura lan batzuk sartu ditu aurtengo plangintzan

Nafarroako Gobernuak Toki Administrazio kontseilariak Malerrekan egin beharreko zenbait lan aurtengo toki azpiegiturarako obren plangintzan sartu ditu.

Honela, presio altuko ur-hornidurari dagokionez, 160 milioi pezeta inbertituko dira Ituren, Elgorriaga, Doneztebe eta Sunbilla soluzioan, hau da, erreketatik ura hartzea eta eramatea, ur-biltegi orokorra eta trata-

mentu planta egiteko lanetan. Saldiaستيك Erasuneran bitarteko hodia egiteko, berriz, 22 milioi terdi gastatuko dira.

Erreken garbiketa eta saneamenduari dagokionez, Nafarroako Gobernuak 52.200.000 pezetako inbertsioa egingen du Ituren-Ezkurrako hodi nagusiko kolektorea egiten.

Hiri hondakin solidoen edo zaborren tratamenduak ere izanen du partida ttiki bat.

Nafarroako Gobernuak bortz milioi inbertituko ditu kontrolatu gabeko zaborte-giak ixten eta bertze 1.400.000 pezeta beira eta paperak biltzeko kontenedoreak paratzen.

Ezkurrako zolaberritze lanen bigarren faseari ekiteko 28 milioi pezeta izanen dira eta Sunbillako Arrutela eta Juantxekoborda baserrietarako bideak egiteko, azkenik, 27.600.000 pezeta.

## Iturengo babes ofizialeko etxebizitzak adjudikatu dira

Ituren babes ofizialeko zortzi etxebizitza egiteko alde aurreko adjudikazioa egin zuen martxoaren 11n Herriko Etxeak. Elizondoko ‘Iturria, S.L.’ enpresarena izan da eskaintzarik onena eta etxebizitzak egiteko prest azaldu da, beti ere, bajeak bere eskuetan gelditzen badira. Alde aurreko adjudikazio honen ondotik, apirilaren 3an egingen omen da behin-behineko adjudikazioa

eta beranduago, behin betirako adjudikazioa. Babes ofizialeko etxebizitzak legean aldatu izan dira eta ondorioz, lanen lizentziari buruzko zerga osoa ordaindu behar da aurretik. Halere, Iturengo Herriko Etxeak %90ean subentzionatuko du zerga hori.

Bertzalde, Doneztebeko Ostolazari adjudikatu zaio etxe batean, babes ofizialeko lau etxebizitza egiteko lana.



BAZTAN, BORTZIRIAK

eta MALERREKA:

## Zaborren bilketa sistema egun batetik bertzera erabakiko da

**2. ZABORREN TRATAMENDUA:** Baztan, Bortziriak eta Malerrekako alkateak, Nafarroako Gobernuko Toki Administrazioako Kontseilariarekin bildu ziren. Orduetik honat, zenbait pauso eman dira arazoa.

**3. EUSKARAREN EGOERA GURE HERRIOTAN:** SOZIOLOGI LANTEGIA enpresak duela bizpahiru urte egindako inkestaren emaitzak (lehen zatia).

**4. NEKAZARITZA-ABELTZAINITZA:** Artzai

eta gasnategien arteko akordio falta, Iparlat eta esne sektorea, berri laburrak...

**6. OIHANGINTZA:** Zuhaitzak ongi kimatuz, zuraren kalidatea eta prezioa hobetu egiten da. Baratzeko Xokoa.

**7. DIRULAGUNTZAK:** Deialdien informazioa.

**8. ELKARRIZKETA:** Ale honetan Gazteluko Celestino Sagardiari.



## ZABORREN TRATAMENDUA

# Udal ordezkariak Javier del Castillorekin bildu ondotik Bertako udalen esku dago zein sistema aukeratu

●tsailaren 23an bildu ziren Iruñean Patxiku Oiarzabal, Baztango alkatea, Miguel M<sup>a</sup> Irigoien, Bortzirietako Hiri Hondakinen Mankomunitateko presidentea eta Miguel San Miguel, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitateko lehendakaria Javier del Castillorekin, Nafarroako Gobernuo Toki Administrazio Kontseilariarekin. Izan ere, otsailaren 10ean Zubietako Herriko Etxean egindako zonako alkatebatzarrean, zaborren afera 'premia haundiko gaia' bezala kalifikatu zen. Bileran horretako aktan erraten denez, «Baztan eta Malerrekako zabor errausgailuek dituzten arazo larriak ikusirik, lehenbailehen eskatu behar zaio Nafarroako Gobernuari gai honetaz pentsatzen duena argitzea, eta udalekin batera, behar diren erabakiak hartzea».

## Bilera

**Javier del Castillorekin**  
Bilera eskatzea erabaki zenean hamalau egunetara elkartu ziren Nafarroako Gobernuaren egoitzetan udal ordezkariak eta Javier del Castillo kontseilaria. Bilera horretan egoera zertan dagoen aztertu ondotik, egon daitezkeen soluziobideetaz solastu ziren bi aldeak. Soluzio hoienean, Baztan, Bortziriak eta Malerrekako zaborrak Arangurengo zabortegira



BEINTZA-LABAIENGO  
ZABOR ERRAUSGAILUA

eramateko posibilidadeaz ere solastu ziren, baina itxura denez, aukera arrazabaztertua ez egon arren, maila desberdinetako zailtasun dexente ditu.

*Baztan eta Malerrekako errausgailuen egoera hain da txarra, ez dagoela horrela gehiago irauterik.*

## Alternatibak

Gauzak horrela, Javier del Castillok bertako udalen esku utzi zuen zaborren tratamendurako nahi duten sistema aukeratzeko. Zaborrak Arangurenera eramateko posibilidadea baztertua gelditzen bada, funtsean, hiru dira dauden alternatibak: batetik, zaborrak erretzeko labe haundi bat egitea, bertetik, zabortegi kontrolatua, eta hirugarrenik, birziklatze plantarena.

Artikulu hau 'SOZIOLOGI LANTEGIA' enpresak egin du bereziki TTIPI-TTAPA aldizkariarentzat. Horretarako, «Euskara Nafarroan zertan den» (1) izeneko ikerketan bildutako datuak erabili dira. Ikerketa hau Nafarroako Gobernuo Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiaren enkarguz egin zen 1992-94an. Bi helburu bete nahi dira orain artikulu honen bitartez: alde batetik TTIPI-TTAPA banatzen den herrietan euskarak duen egoera orokorra deskribatzea, eta bestetik, herritarrei eurenaganatzea beraiei esker bildutako informazioa.

Esualde osoko diagnostika egiteko, 1.632 inkestak emaitzetan oinarritu gara, buruz-buru eginak Baztan, Bortziriak, Leitazar eta Malerrekako 16 urtetik goitiko artean, aleatoriki eta proportzionalki. Azterketaren aspektu teknikoak hauek dira:

UNIBERTSOA	27.189 BIZTANLE
KONFIDANTZA MAILA	%95,5(σ)
AKATS TARTEA	± 2,4
HIPOTESIA	P = Q = %50
ELKARRIZKETA KOPURUA	1.632
KANPO LANA	SOZIOLOGI LANTEGIA
DATUEN TRATAMENDUA	YOLANDA ARANA BARBRO PROGRAMA
IKERKETAREN ZUZENDARITZA	CARLOS VILCHES JONE COSIN

Hauek dira eskualde bakoitzean egindako elkarrizketa kopurua:

BAZTAN (2)	516
BORTZIRIAK	507
LEITAZARAN	293
MALERREKA (3)	316

Ikerketa soziologiko honen oinarria osatzen duten datu teknikoak agertu ondotik, segidan, eskualde osoaren ikuspegi soziografikoa zein den agertuko dugu. Aurrerantzean, artikulu bana eskeiniko diogu eskualde bakoitzari. Leku arazoengatik, bakarrik daturik nagusienak aipatuko ditugu hemen, inkestak zituen 80 galderen emaitzak agertzea luzeegia bait zaigu.

## Landa Lurraldeari buruzko aldizkaria

Argitaratzailea: **Lurra** Kultur Elkartea • Herriko Etxeko Plaza, 1  
• 31780 BERA Ale honetan parte hartu dute: Lourdes Indaburu, Juan Kruz Iriarte, Arantxa Arregi, Soziologi Lantegia, Pello Apezetxea eta Karmele Tolosak **Maketazioa eta Banaketa:** ttipi-ttapa **Inprenta:** Graficas Ona **Tirada:** 6.200



Aldizkari honek  
Nafarroako Gobernuaren  
laguntza jaso du



# Zertan dago euskararen egoera gure herriotan? (1)

SOZIOLOGI LANTEGIA enpresak egindako inkesta soziolinguistikoaren emaitzak

## Datu sozio-demografikoak

Populazioaren %50ak OHO edo Oinarrizko Ikasketak ditu, %27ak Batxilergoa edo Lanbide Formakuntza eta %11k unibertsitate ikasketak. Jatorriari dagokionez, gehienak, %83, hemen sortutakoak dira. Familia tipologiarik hedatuena guraso eta seme-alabez osatutakoa da (%54). Bestelako ahaideak ere biltzen dituzten familiak %20 dira, eta azkenik, pertsona bakarreko familiak %6.

Populazioaren %32ak klub edo elkarteren bateko partaide da, nahiz eta aktiboki parte hartzen dutenak %26 izan.

## Hamar pertsonatik zortzik euskaraz egin zituen bere biziko lehen hitzak

Herri bakoitzeko berezitasunak alde batera utzita, interesgarria da jakitea zein den euskararen ezagupen maila. Grafikoan daude emaitzak.

%78aren ama-hizkuntza euskara izan da, %14arena gaztelera. Gainerakoena, euskara eta gaztelera. Inkestatuen %71k euskara erakutsi die beren seme-alabei. Eskolaren eragina ere, kontutan hartzea da. Gurasoen %22k, halere, seme-alabek euren arteko harremanetan erdara maizago erabiltzen dutela diote.

## OHARRAK:

- (1) Datu gehiago nahi izanez gero, kontsultatu liburua: 'Euskara Nafarroan zertan den', Carlos Vilches eta Jone Cosin, Nafarroako Gobernuko Argitalpen Zerbitzua, Lizarra 1996.
- (2) Urdazubi eta Zugarramurdin egindako 44 inkestak Baztanen sartuak daude.
- (3) Bertizaranako herriak Malerrekari dagokion kopuruan sartuak daude.



Hemendik aurrerako datuek, euskaldungoari edo euskaldun izateko bidean daudenei egiten diote erreferentzia.

## Erabilerarik haundiena familian eta lagunartean, ttikiena mediku eta administrazioekin

Euskara familian erabiltzen da gehien, nahiz eta euskaldunen erdiek euskara nonahi erabiltzen duten. Lautik batek lantegian euskaraz egiten du, eta %41ak lagunartean. Medikuekin eta administrazio publikoekin, ordea, erabilerak nabarmenki jausten da.

Euskaraz dakitenen %19ak ulertzen du euskara batua, eta inkestatutakoaren seme-alaben artean %29k. Nolanahi ere, %62ak eskoletan bertako

euskalkiak eta euskara batua, biak, bultzatu beharko zirela uste du. Hamar pertsonetik zortzik euskara ahal duen guzitan erabiltzen du. Hainbestetan erabiltzen ez dutenek, jendartearen erdara erabiltzea errazagoa dela dio.

Garrantziaren arabera, euskarak presentzia haundiagoa duen denbora-libre tartean ETB1, irratia aditza eta kazetak leitza dira. Euskadi Irratiak eta Xorroxinek biltzen dituzte euskarazko irratiaioen entzule ia-guztiak.

## Ardura guti irakurtzen eta idazten ikasteko

Paper berbera euskaraz edo gaztelerez irakurtzeko aukeraren aurrean, %22ak beti euskaraz dagoena leitzen duela dio, eta %39ari berdin zaio bietako edozein leitza. Euskaldunen %32ak, ordea, erdarazko testua aukeratzen du. Tefonoa hartzerakoan, halere, lehenbiziko hitza euskaraz egiten du %62ak.

Alfabetatu gabeko euskaldunei, leitzen eta eskribitzen ikasteko prest ote dauden galdetu zitzaizkien. %29ak prest zegoela erantzun zuen, baina bakarrik %2a ari da ikasten. Adina eta denbora falta da aitzakirik erabilienean interes falta arrazoitzeko.

## Euskaraz ez dakitenetan, 10tik 8 ikasteko prest

Izan ere, heren bat horretan saiaturia da. Bidean gelditu direnek, denbora falta, ordutegia eta euskararen zailtasunak aipatu dituzte. %54ak eguneroko harat-honatean badu zailtasunik euskaraz ez jakiteagatik.

## Udalek eta Nafarroako Gobernuak gehiago saiatu beharko zuten normalizazioan

Berriro azterketako unibertso osoa hartuz, eskualdea eremu euskalduna deitutaikoan egotearekin, %55a konforme dago. Heren batek, ordea, ez du begi onez ikusten zonifikazioa. Irakaskuntza, administrazioak eta euskarazko komunikabideak indartzea dira, jendearen iritziz, lehentasuna duten lan-ardatzak. %59ak noizbait euskararen aldeko ekintzetan parte hartu du. %52ak udalek euskararen normalizazioan gehiago saiatu beharko zutela dio. Portzentai beretsuak daude Nafarroako Gobernuarekin.

## Udalak eta euskara

Udalek zein hizkuntza erabili beharko zuten galdetzerakoan, hona erantzunak: %61ek euskara eta gaztelera, biak berdina, %18k euskara gaztelera baino gehiago eta %9k bakarrik euskara. Bakarrik gaztelera erabili beharko zela diotenak %2 dira. %76arentzat, udalek lan kontratuak egiterakoan euskaraz jakitea exigitu behar dute eta %48arentzat, lehentasuna du udal-langileak euskalduntzea. Lautik hirurentzat euskaraz aurrera egin du azken 5 urteotan, eta oraindik gehiago egin beharko luke. Horretarako, eskoletan segurtatu beharko da.



## 'NAFARROAKO ARETZEA'

**Eztabaidak eta kanpoko interesen presioak**

'Nafarroako Aretzea' izenarekin saltzen den haragiak, barne erreglamenduaren arabera, Nafarroan sortua eta gizendua behar du izan. Loditegi Industrialak hori aldarazi nahirik dabilta orain.

## DIRULAGUNTZAK

**Betizuak eta nekazaritza ekologikoa bultzatuko**

Nekazaritza ekologikoa, Betizuak eta Jaka arrazako zaldiak bultzatzeko, laguntza bereziak onartu dituzte Nafarroako Gobernuak eta Europako Fondo Sozialak. Interesatuak apirila baino lehen tramitatu beharko dituzte eskariak. Informazio gehiago Nekazal Ganbaretan.

## ZERRIAK

**Debekatuta dago zerramak lotuta edukitzea**

Zerritegiek bete behar dituzten arau berriak indarrean daude urtarritatik aitzin. Horren arabera, debekatuta dago zerramak lotuta edukitzea, eta sistema hau erabiltzen dituztenek hamar urteko epea dute arau berrira egokitzeke.

## MAIZTERRAK

**Maizterrek baserriaren jabe egiteko eskubidea dute**

Baserri Maizterren Legeak, heldu den urteko abenduaren 31 bitarte luzatu du errenta-historikoak dituztenek baserriaren jabe egiteko duten epea. Eskubide horretaz baliatzen ahal direnek komeni dute beren egoera aztertzea denbora bukatu baino lehen.

# Artzai eta gasnategien artean akordiorik ez

Gasnategi haundiek (Enaquesa, Vasco-navarra, Araia, Izarra) eta ttikiak arazo berdina dute: ezin elkartu. Gasnategi ttikiak aitzindu egin dira prezioa ematerakoan, eta aurten, prezioa altxatu egin dute. Banaz bertze, esne litroa 130-140 pezetetan jarriko da, eta gero eta apostu garbiagoa egin dute esnearen kalitatea ordaintzeko. Zenbait gasnategik iaz aplikatu zituzten lehenbizikoz kalidade primak, eta aurten ere, bide horretatik jo nahi dute.

Gasnategi haundiak, bertalde, prezioa ezin eman ez dabilta. Artzai dexente esnea entregatzen hasi da eta orain arte kobratu duten prezioa iazkoa da. Zurrumurru franko dabil artzaien artean bainan prezio finkorik ez. Arabako Izarra enpresak 130 Pta. (5,2 libera) ordainduko du esne litroa. Iparraldeko artzaiek 5,80 libera (145 Pta.) ordaintzeko negoziatu dute eta estatu espainoleko zenbait

gasnategik iazko prezioak mantentzeko prest agertu dira, 140-145 Pta.

## PREZIOAK

▶ **Arabako** Izarra enpresak 130 Pta. ordainduko du ardi esne litroa.

▶ **Iparraldeko** artzaiek 5,80 libere-tan negoziatu dute esne litroaren prezioa.

▶ **Estatu** espainoleko zenbait gasnategik 140-145 Ptan. mantenduko dute prezioa.

**Esnearen kalidadea**

Lekunberriko laborategiko datuen arabera, iaz ateratako esnearen erdiak bakarrik beteko lituzke Europako Legediak agintzen duen kalidade arauak. 1995etik aitzinera, esneak milioi bat bakteria baino guttiago izan beharko ditu, eta 1999rako, esneak 500.000 bakteria baino guttiagokoa izan beharko du.

Iparraldeko datuak, zentzu honetan, harrigarriak dira. Artzaien %76ak 100

mila bakteria baino guttiagoko esnea ateratzen du. Baliteke analisiak egiteko sistema desberdina izatea. Dena dela, datu hauek nahiko adierazgarriak dira eta erabaki tinokoak hartzeko tenorean gaude. Momentua da, beraz, gasnategiak eta artzaiak elkarlanean hasteko eta behar diren neurriak hartzeko. ■

## • PREZIOEN GORABEHERAK • PREZIOEN GORABEHERAK • PREZIOEN GORABEHERAK

## ZERRIKUMEA

\* 20 Kilokoa




Azkeneko joera



## ZERRI GIZENA

\* 95-100 kilo artean Pta./K.



Azkeneko joera





# Iparlat: bistada bat esne sektoreari

Estadu espainolean, urtean, 700.000 milioi Pta. mugitzen dute esne enpresek. Hau da, elikagaien industrian, gaur egun dagoen sektorerik garrantzitsuena. Sektore honetan multinazionalak dira jaun eta jabe, eta horrela, 500 enpresetatik 15ek kontrolatzen dute saltzen den %60a. Hauen artean Nestle multinazional suitzarra dugu nagusi-ena, Frantziako Danone, Besnier, Kraft, ULN eta bertze batzuekin batera.

Azken urte hauetan, sektore honetako enpresa gehienek dirua galdu dute. Haien arteko kompetentzia eta gatazkek, enpresa bat baino gehiago ito dute. Kasu horretan dago 'Lactaria Española-LESA' izeneko, Iparlat eta Leyma enpresek erosi berri dutena. Errekonbertsio egoera honetan, talde indartsu bat bultzatu nahi dute administrazio desberdinek, eta berriki Leyma (Galiziako esne kooperatiba) eta Iparlat-en artean

egin den erosketa honekin horixe lortu nahi da: 1.000 milioi litro esne esku beretan gelditzea. Gaur egun estatu espainiarreko kuota 5.400 milioi litrokoa da, eta orain arte enpresa haundienak 500 milioi litro biltzen zituen. Konparatzeko, estatu frantziarreko enpresa nagusiak, adibidez, 4.300 milioi litro biltzen ditu. Argi dago, beraz, gerra honetan zein den merkatuak agintzen duen legea: haunditu edo desagertu.



**IPARLATEk egin duen planaren arabera, Nafarroako lantegiak postreak, jogurrak eta deribatuak ekoiztuko ditu**

## Baserritarrek kapitalaren gebiengoa galdu dute IPARLATen

Kapital haunditzea onartu zuen IPARLATEko kontseiluak azken urteotako zorrak estaltzeko eta LESAKo plantak erosteko. Horrek, bertze gauzen artean, akzioen banaketa aldatu du. COPELECHE eta GURELESAK kapital sozialaren %53,45a izan beharrean %46,48a izanen dute bakarrik. Baserritarren indar galtzea IPARLATEko buru aldatzearekin batera gertatu da. Alfonso Menoyoren postuan Jose Manuel Goikoetxea sartu da, berriki arte EAEko (Euskal Autonomi Elkarte) Nekazaritza kontseilaria izan dena. Gogoratu behar da Nafarroako Gobernua eta Eusko Jaurlaritza beti bat etorri direla akzioen gebiengoa baserritarren esku egotea eskatuz. Orain, badirudi pentsatzeko modu hoiek alde batera utzi direla. Eusko Jaurlaritza eta banketxeak izanen dira erabakiak hartuko dituztenak.

### Datuak eta kopuruak

- Nafarroan, 1.400 baserritan ateratzen dute esnea.
- 150.000 tona esne produzitzen dute guzien artean.
- Danonek %22a biltzen du, (31.000 tona esne) 200 baserritik bildua, hoietatik 78 Baztango baserriak eta bertze 30 Malerrekakoak.
- Iparlat-ek %45a biltzen du. 1.000 sozio inguru ditu (Copeleche eta Gurelesa).
- Gelditzen den esne kopurua (%33a), hurbileko gasnategietara eta kanpoko zenbait enpresek biltzen dute: Angulo, Clesa, Frias, Enaquesa eta abar.
- Iparlat-ek 3 lantegi ditu martxan: Iruñeko esnekiak ekoizteko, eta Bilbo eta Urnietaok esnea enbasatzeko. Urnieta-ko planta egin berria da eta 280 milioi litro esne tratatzeko ahalmena du. Instalazioak Europan dauden berrienen eta aurreratuen pare dituzte.

BEHERAK • PREZIOEN GORABEHAK • PREZIOEN GORABEHAK •



## BILDOTSA

### Urteroko gora beherak prezioan

Eguberri inguruan kiloa 600 Pta. ordaindu bazen ere, bestak pasatu ondotik, bapatean, 200 pezetetara jautsi zen bildots kiloaren prezioa (bizirik). Berrikiago 340 Pta. ordaintzen zuten, eta litekeena da, martxoaren ondar aldera zerbait altxatzea prezioa. Nolanahi



ere, azken hamar urteotan ezagutu den maila beretsuan aurten ere.

## IKASTAROAK

### Doneztebeko Juansenean

ITG-TKIK, Nafarroako Teknika eta Kudeaketa Institutuak antolatu ohi dituen ikastaroen artean, martxoan, 'Sagardotako eta Jateko Saga-

rrendoen Laborantza' ikastaroa dago. Geroago, ekain aldera-edo, 'Oihangintza' ikastaroa antolatzen ari dira ITG-TKIKoek.



## OIHANGINTZA

# Zuhaitzak ongi kimatuz, zuraren kalidadea eta prezioa hobetu egiten da

LURRA aldizkariaren azken zenbakian, kimatzen ikasteko eta horrek duen garrantzia jakiteko kutsilloa egin behar zela aipatu genuen. Jende artean beti egon da sagarrondoak, udareondoak eta horrelakoak *bakarrik* kimatzen direlako ustea. Hori ez da horrela. Bertze arbolek ere komeni dute kimatzea.

Zuhaitzak ongi kimatuz, egurraren produkzioa hobetu egiten ahal da eta baita haunditu ere. Kimatze on baten ondorioz, zuraren kalitatea hobetzen da, eta dudarik gabe, prezioa ere. Kimatu gabeko Haritz Amerikanoaren prezioa, adibidez, 7-9.000 Pta. inguruan ibiltzen da, eta kimatua izan den Haritz Amerikanoarena, berriz, 12-16.000 Pta. bitartean.

## Nola kimatu

Adarrak motz-motz gelditzea da kimatzearekin lor-tu nahi duguna, eta lan hori adar ttikienetatik hasi behar dugu egiten. Horrela, adarra ebakitzerakoan zuhaitzari gelditzen zaion zauri edo arrastoa, zuhaitzak berak beteko du denborarekin.

Kimatzea, gain-behera hasi behar dugu eta bakarririk behar diren adarrak kendu behar dira, ez gehiago. Goiti-behera horretan, lehenik, enbor nagusiarri traba egiten dioten adarrak kendu edo maiztu behar dira, eta gero, 3 zentimetroko diametroa dutenak. Adar lodiagoak kimatu ezker, gero, ebakiaren marka gelditzen ahal da, eta hortik, gaixotasunak ere sartzen ahal zaizkio. Komeni izaten da zuhaitz gehienak kimatzea, baina



Haritzak goitik behera kimatu behar dira



Pinuak azpitik goiti kimatu behar dira

## Kimatzearen helburua, zuhaitz zuzenak, ekilibratuak eta kalidateko zura lortzea da

pixka bat haundituak badira, hoberena izaten da azkenekoz geldituko direnak aukeratzea eta hoiek kimatzea.

Goiti-behera kimatzea, haritzetan egiten da. Pinu-

etan azpitik goiti, kontutan hartuz beti, iztapeak agertzen baldin badira kendu egin behar direla.

## Sei metrotik goiti ez du merezi kimatzeak

Zuhaitzak sei metroko altura hartu duenean adarririk gabe, hortik goiti ez du merezi kimatzeak, ez baita errentagarria. Zuhaitzak balore gehiena hor dauka, sei metro inguru horretan.

● J.M.J. ●



## BARATZE XOKOA

### GOMENDIOAK

#### ▷ Nola kendu belar txarrak

Etxe ondoko baratze eta lorategietan haztea nahi ez ditugun belarrei 'belar txarra' deituko diogu hemen. Osiñak, larrak, lapaitzak... aunitz dira. Duten tipologiaren arabera, bi belar klase aurkituko ditugu. Batzuk iraunkorrak dira, berehala hazten diren horietakoak eta kentzeko zailak. Belar hauetan bistan dagoena erraz kentzen da bainan zain eta guzi ateratzea ez da erraxa izaten. Beste belarrak urterokoak dira, hazia bota ondotik hazten direnak. Azken hauek kontrolatzeko modurik hoberena haziak kontrolatzea da. Haziak erori baino lehen kendu ezker, hurrengo urtean ez dira gehiago sortuko. Belar iraunkorrak kentzeko metodorik hoberena, lur zati hori ongi jorratzea da. Bertzenaz, egun eguzkitsu batean aitzurtu eta belar horiek idortzen jartzea ere proba dezakegu. Dena dela, metodorik azkar eta eraginkorrena produktu kimikoren bat erabiltzea da. Baina kontuz, aurretik pentsatu ez dugun ondorioz eragiten ahal du belarrean eta lurrean. Halere, belar txarrak desagertarazteko sistema hau erabiltzea erabakiko badugu, hobe da pozoia lurrera ez ailegatzea eta bakarririk hostoak bustitzea. Belar txarren kontrako beste sistema lurraren gainean plastiko beltza edo tela sintetikoa jartzea da. Argirik pasatuko ez denez, ez da belarrik ateriko.

### LABUR

▷ Haizeak sekulako kalteak egin ditu gure mendietan zuhaitz aunitz lurrera botaz. Horren ondorioz, orain sekulako zur pila dago saltzeko eta mendietatik ateratzeko, eta gainera, hobe lehenbailehen egiten bada, bertzenaz, zutik dauden zenbait arbol klasetan gaixotasunak agertuko baitira.

▷ Plantazioak martxan onean doazi. Mantso bainan segur. Eta gainera, esperantza, itxaropena, puxka gehiago ateratzea oihanak mantentzeko.

▷ Aldaketak daude Nafarroako Gobernu Mendi Zerbitzuan. Emiliano Fernandez bere kargutik kendu eta haren lekuan Natxo Elorrieta jarri dute. Halere, badirudi oraindik aldaketa gehiago ere izaten ahal dela zenbait ardura kargutan.



## EGUTEGIA

### 1.- Erein

• Hazi behar duteneko lekuan; azenarioak, tipulinak, espinakak, leka motxak eta patatak. Tapatutako mindegian tomateak, piperrak eta berenjenak.

### 2.- Landatu

• Hezurra duten fruitu arbolak (lurrarik gabeko plantak). Zainak lurrez estaliak saltzen dituztenetan, edozein planta klase.

### 3.- Kimatu

• Hezurra duten fruitu arbolak.

### 4.- Bakandu

• Maruriak eta alkatxofak.

### 5.- Bertze lanak

• Urritz adarrak landatzeko garai egokia da.

• Udozkenean eta neguan bildu diren zuhaitz eta zuhaixken fruituak erein (bagatzak, ezkurak, gaztainak, gorostiak...)

## Apoak, sagarroiak, zizareak...

# BARATZEKO LAGUNAK

Batzuk agertu bezain abudo desageritzen dira. Bertze batzuk, ordea, gustora laketzen dute gure baratzeetan. Kasu eman! Gehienak, gu ohartu gabe, baratzea zaintzen laguntza haundia ematen digute. Hoietako batzuk arras delikatuak



dira, eta guk baratzea pozonez betetzen baldin badugu, animale hauek ere hiltzeko arriskuan jarriko ditugu. Ikus ditzagun hoietako batzuk:

**Zizarea:** Jakina da zizareak dauden lekuan lur ona izaten

dela, lur harrotua eta aireztatua. Zizareek gorotz freskoa ongari ezin hobea bihurtzen dute.

**Apoa:** Apoek ez dute fama onik bainan ez dugu baratzearentzat lagun hoberik aurkituko. Landareei kalte egiten dieten xomorro eta

intsektuak jaten dituzte apoek.

**Sagarroia:** Hau ere intsektu, ar, bare eta gisa horretako animalitxoak janez bizi da.

**Kattalingorria:** Zenbait landarerentzat kaltegarriak diren zorriak jaten ditu.

## Arras beira guti birziklatu zen iaz

Hona 1995eko datuak. Baztanen biltzen dituzten botilak zaborteigira eramaten dira, ez dituzte birziklatzen. Bortziretan iaz 40.000 kilo birtziklatu ziren, nahiz eta bildu, dexente gehiago bildu zen. Malerrekan ez zen kontrolatu zenbat kilo bildu eta birtziklatu ziren. Saran, azkenik, ez dute daturik eman.

	Biztanleak	Kiloak
Arano	150	669
Baztan	7.918	0
Bortziriak	8.311	40.000
Goizueta	965	18.580
Leitza	3.123	39.089
Malerreka	5.163	-
Sara	2.061	-
<b>Denetara</b>	<b>27.691</b>	<b>98.338</b>

## DIRULAGUNTZAK

Informazio gehiago: CEDERNA-GARALUR

Baztan ☎ 580561 Bortziriak-Malerreka ☎ 451654 Leitza ☎ 510009



LANA

### Autonomo gisa hasi nahi duten langabetuak.

Deialdia Nafarroako Aldizkari Ofizialaren 96/92 zenbakian argitaratu zen (92/08/10). Foru Dekretua 259/92. 400.000 pezetako dirulaguntza. Deialdi iraunkorra da eta muga egunik gabekoa.

### Lan esperientziarik gabeko langile tituluak kontratatzeko dirulaguntzak.

Deialdia Nafarroako Aldizkari Ofizialaren 96/92 zenbakian argitaratu zen (92/08/10). Foru Dekretua 259/92. 200.000. eta 350.000 pezeta arteko dirulaguntza kontratu iraupenaren arabera. Deialdi iraunkorra da eta muga egunik gabea.

### Lanpostu berriak sortzeko Kooperatiba eta Elkarte Anonimo Laboraletan (S.A.L.)

Deialdia Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (86/02/27). 86/02/21eko Agindu Ministeriala. 250.000 eta 500.000 pezetako dirulaguntza langile bakoitzeko bere egoeraren arabera. Deialdi iraunkorra da eta muga egunik gabekoa.



NEKAZARITZA

### Nekazaritza ekologikorako laguntzak. Alor horretan prestatu nahi duten pertsona eta elkarreentzat dirulaguntzak.

Deialdia Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (95/02/08). 95/01/20ko 51/1995 Agindu Ministeriala. Deialdi iraunkorra da eta muga egunik gabekoa.

### Emakumeak enplegatuko dituzten industria lantegi berritzaileendako dirulaguntzak.

Europako Komunitadetik bideratutako dirulaguntza. Proiektu bakoitzeko 4.000 eta 10.000 ECU bitarteko dirulaguntza.

### Emakumeak presentzia ttikia duten lanbideetan, kontratazio laguntzak enprezentzat.

Deialdia Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (86/02/21). 86/02/27eko Agindu Ministeriala. 250.000 pezeta edo gehiagoko dirulaguntza kontratu bakoitzeko. Deialdi iraunkorra da eta muga egunik gabekoa.

### Ezinduak kontratatzeko dirulaguntzak.

Deialdia Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (86/02/27). 86/02/21eko Agindu Ministeriala. Dirulaguntzak: kontratu iraunkorretan 2.000.000 pezeta gehienez kontratu bakoitzeko; aldi bateko kontratuetan Aseguro Sozialaren %100a eta soldata minimoaren %50a eta autonomoetan 400.000 pta. Deialdia iraunkorra.

### Ingurugiroa zaintzen lagunduko duten nekazal produktioentzat laguntzak.

Deialdia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (95/06/09). Maiatzaren 22ko 113/1995 Foru Agindua. Deialdia iraunkorra eta muga egunik gabea.

### Basabereek egindako kalte-ordainak.

Deialdia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (95/06/12). Maiatzaren 19ko 589/1995 Foru Agindua. Deialdia iraunkorra eta muga egunik gabea.



ERREKAK

### Erreka bazterrek garbitzeko dirulaguntzak.

Deialdia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (93/03/17). Otsailaren 24ko 117/1993 Foru Agindua. Deialdia iraunkorra eta muga egunik gabea.



INDUSTRIA

### Ttiki eta Erdi Tamainako Industrien Garapenerako Laguntzak.

Deialdia Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (95/05/23). Maiatzaren 8ko Agindua. Deialdia indarrean 1999 arte.



## AZKEN ORRIALDEKOAK

**Bertziko Natur Parkea**

Parke honen erabilera eta kudeaketa zuzenduko duen II. Plana onartu berri du Nafarroako Gobernuak. Turista eta ikasle artean, urtean 100.000 bisitari inguru pasatzen dira Bertziko Lorategi eta Interpretazio Zentrutik.

**Multa igelak harrapatzeagatik**

Leurtzako urtegietan 821 igel harrapatzeagatik, Polizia Foralek Iruñeko bi lagun multatu dituzte otsaila hasieran. Ugalketa sasoiari daude orain igelak eta horregatik biltzen dira urtegi inguruetara. Berriki arte, igelak Zaindutako Espezien Katalogoan sartuak zeuden. Orain ez daude horrela, baina halere, galerazia dago hartzea.

**Sagar ekoizleek Elkartea sortu**

Nafarroako Mendialdeko Sagarraren Elkartea sortu nahi dute. Sagardiak indartu nahi dituzte, bertakoak diren bariedadeak bereziki eta komertzializatzeko aukerak aztertu.

# «Konpetentzia haundia egiten digute baserri bizi ez direnek bainan lau ardi dituztenek»

## Nolako balantzea egiten duzu azken urteotako esperientziaz?

Bueltatu nintzenetik arazo dexte izan ditut, aurten haizeak bi aldiz eraman digu teilatua eta behiekin ere arazoak izan ditut. Urteak joan ahala, konturatu naiz edozein lanetan gehiago irabazi eta lasaiago bizitzeko aukera izanen nuela. Ni bezalako gazteak zaila du honetan segitzea.

## Inbertsio haundiak egin eta baserria arras aldatu zenuen. Beharrezkoa zen hori?


Beharrezkoa dira minimo batzuk honetatik bizitzeko. Bertze lantegitan bezala, profesionalak behar dugu izan eta horretarako prestatu egin behar da. Esneak prezioa egiteko kalitatea izan behar du eta eskatzen diren baldintzak gero eta gogorrak dira. Ez baduzu behiak jeitzeko makinari eta garbitasun mailarik, ez duzu deus egiterik. Ardiak ere eskuz jeitzen ahal dira, baina gero, egun osoa tresnak garbitzen pasatu beharko duzu.

## Nola ikusten duzu ardi esnaren kanpaina?

Hasieratik bertako gasnategi bati saltzen diot. Traua egiten dugu eta litroa 130 Ptatik gora ordainduko dit. Orain arte ongi moldatu gara, eta gainera, esne ona ateratzen dut eta hori ere kontutan hartzen da. Dena den, urtero kalidade sariak ordaintzea eskatzen diot, kanpaina hasieran finkatzen dugu.

## Ardi latxa edo bertze klaseko ardiak?

Ardi latxak ditut eta kontrolatuak daude. Niri ustez hemen bertze aukerarik zaila da, eta ardi latxak kontzekotan, zerbait egin beharko dugu hobetzeko.



## Celestino SAGARDIA

Gazteluko baserritarra

ESPLOTAZIOA DUELA 4 URTE BERRITUA. INBERTSIO HAUNDIAK EGIN DITU ETA 20 BEHI FRISOI ETA 200 BURUKO ARTALDEA DITU. HASIERAN NAHIAGO ZUEN BEHIEKIN EDO ARDIEKIN ESPEZIALIZATU, BAINAN BATETIK ESNE KUOTA ZELA, ETA BESTETIK DUELA 4 URTE ARDIEKIN BAKARRIK EZIN ZELA BIZI, AZKENEAN BEHIAK ETA ARDIAK.

Nik ez ditut aldatuko, nahiz eta Nafarroan ITGtik aldatzearen aldeko apustua egin duten. Ardi fuertea da eta bertara egina. Orain, arraza hobetu behar.

## Denominazioek, zerbaite-rako balio dute?

Gasna kanpoan saltzeko bai, bertan berdintsu da. Halere, esnaren prezioan ez da sobera nabaritzen, eta horregatik, uste dut interese gehiena gasnategiek dutela eta ez artzaiek.

## Eta bildotsa, nola ikusten duzu merkatua?

Izorratua. Beti kooperatiba baten bitartez saldu ditut, baina hura ere izorratu zen, eta aurten, ahal bezala saldu ditut. Hemen inor ez da hurbiltzen bildotsak biltzera, eta garaiotan gutiagoko. Dena den, kooperatiba sistema ona da eta 'Behi Kooperatiba' sartu naiz, modu bakarra baita bildotsak zerbait ordaintzeko. Gaur egun konpetentzi haundia egiten digute baserri bizi ez direnek bainan lau ardi dituztenek. Urtean bildots bat kentzen diote ardiari eta Europako laguntzarekin moldatzen dira, bainan merkatua izo-

rratzen dute. Ez dut ongi ikusten sistema hau mantentzea.

## Zerbaite-rako balio dute Europako laguntzek?

Paper pila bete behar dira eta beti bada ostikeriaren bat. Lehengoan erran zidaten ardiak ekaina arte kontu behar nituela etxean. Nik ardi zaharrak garai honetan kentzen ditut. Inspekzioa pasatzeko ardi guztiak mantendu eta bazkatu behar. Ez dute nekazarrietan pentsatzen laguntza hauek jartzean.

## Gaiaz aldatuz, behi esnea Iparlat-i saltzen diozu. Nola ikusten duzu enpresaren azken aldaketak?

Etorkizunari begira ez zegoen bertze soluziorik; enpresa indartzea. Bertakoa izatea garrantzitsua da. Badira enpresa gehiago, baina niretzat, gibeltik gobernu egotea garantia da. Martxa hartzea espero dut, pentsa bertzenaz! Bitartean etsipena. Gauza hauek pentsatuz etorkizuna beltz ikusten dut. Pentsatzen hasia naiz behiak bertze norbaitekin sozio eginez eramatea eta etxean ardiak bakarrik uztea.



## Hogeita hamasei lagun elkartu ziren Jubilatuen bazkarian

Herriko saneamendu lanak bukatzeko esperoan, zenbait etxetan moldaketan egiten ari dira



Ezkurrako saneamendu lanen bigarren fasea laister hastea espero dute herritarrek

kuntza lanak egiten ari dira. Jonpezkoenea eta Portonea itxura berria hartzen ari dira.

Barrankajatetxean ere lanean ari dira. Ostatur eta jatetxea berritzeaz gain, erretegia jarri du-

te. Gainera, ostale bat egiteko proiektua buruan darabilte. Bestalde, igande ho-

### ttipi-flash

- ❖ **Kate pribatuak**  
Telebista kate pribatuak ikus daitezke Malerrekan martxoaren 8az geroztik. Kate pribatuak ikusten ez ziren Nafarroako azken lekua zen.
- ❖ **Langarra taldearen**  
batzar orokorra martxoaren 28an burutuko da, arratsko 8etatik aitzinera Sunbillako Bustiz ostatuan.

netan ospatu da aurtengo lehen bataioa, Eustakio Mindegiarena, hain zuzen.

## Emakumeen Eguneko afaria ez zen espero bezala atera

Halere, ehun bat emakume elkartu ziren



### AINHOA MUTUBERRIA

Emakumeen hurrengo egunerako antolatutako jaia ez zen espero genuen bezala atera. Lehenbiziko, nahiko jende bilduko ez zenaren beldur geunden, baina azkenean ehun lagunera ailegatu ginen. Afaria goxoa zen eta postrea hartzen genuen bitartean, Amaia Zubiriak lau kantu abestu zituen,

lau besterik ez. Momentuan ez ginen konaturatu baina gero ohar-tu ginen zerbait gertatu zela: nahiz eta ahotza bikaina izan, abesti batzuk ezezagunak ziren eta ezin izan genuen berekin batera kantatu. Hori dela eta, ondorengoak ondoren, azkenean abeslariak afaldu gabe aldegin zuen. Afalondoren, *Beti Presteko* taldeari akats tekniko bat suer-

tatu zitzaioela eta berandu hasi ziren musika jotzen. Eskerrak bitartean bi emakumek jaia alaitzen zutela, betiko abesti zaharrekin. Horixe izan zen onena. Gero dantzaldiak goizaldera arte iraun zuen, juerga galanta egin genuen emakumeok. Gizonak berriz, etxetik atera gabe edo herritik kanpo joan ziren. Ez dira batere solidarioak, ez da?

### Elgorriaga

#### Zaldiz ibiltzeko aukera eskaintzen du gazte talde batek

Elgorriagako gazte talde batek, zaldiz ibiltzeko aukera eskaintzen ari da. Orain dela hilabete t'erdi edo hasi ziren Bertizko Zalditxori erositako hiru zaldirekin eta dagoeneko zortzi zaldiren jabe dira. Normalean, inguruan barna

ibilbide motzak eskaintzen dituzte eta Arantzara joateko ibilbide luzeagoa dute, lau bat ordukoa. Zaldian ibili nahi duenak Herriko Ostatura jo behar du (Udaletxearen azpian) edo bertzenaz, 450592 telefonora deitu behar du.



Goizueta

## Iruñeak ez du onartu nahi herritarren borondatea

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren azken zikloa egitera Leitzara eraman nahi ditu Goizuetako haurrak

ESTEBAN AROZENA

Goizuetan DBH edo ESOn azken zikloaren aplikazioari dagokionean herritarren nahiak eta asmoak bide batetik doaz, eta Iruñeko administrazioarenak bestetik.

Hezkuntza saileko zuzendari orokorra den Angel Urtaşun Uriz elkartu berria da udala eta gurasoen elkarte-ko ordezkariekin gai hau eztabaidatzeko, eta lehengoan jarraitzen dua Iruñeak, hau da, Goizueta eta Aranoko ikasleek Leitzara eraman nahian DBHren azken zikloa han bete dezaten. Hemengo gurasoek, aldiz, garbi adierazi dute hainbat inkesta eta asanblada-



**Azken hilabete hauetan gure artean daukagun Heather Anderson amerikar gaztearen gidaritzapean herriko 20 haur eta gaztetxo saskibaloiaeren teknikak iaksten ari dira. Asten bitan biltzen dira**

ren bidez beraien haurrak Hernaniko ikas-tetxetara bideratu nahi dituztela, askotan aipatu diren sakoneko motibuengatik.

Ordu t'erdi iraun zuen bilera horretan alde bakoitzak garbi utzi omen zuen bere jarrerara. Dena den, aitortu behar da Urtaşunek

ez zuela behin betirako baztertu goizueta-  
rren eskakizuna, azken hitza kontseilariaren eskuetan zegoela esan baitzuen.

### Bertsolaritza

Igandean Nafarroako bertsolari txapelketaren finalaren aitzakiarekin, bi ekitaldi antolatu dira herrian. Ostiral gaueko 11etan Jon Maia eta Maialen Lujanbiok "Bertsolaritzaren eragina euskal kantagintzan" izeneko hitzaldia eskainiko dute zentroan. Dantzarien lokalean berriz, XV. mendean geroztik bertsolaritzaren istoriaren berri ematen duen erakusketa zabalduko da ostiraletik igandera arte.

### Umore Ona

Martin Lujanbio hautatu zuten Umore Onako bazkideek hurrengo bi urtetan presidentearen lekua bete dezan.

Areso

## Emakumeen afaria eta zezen-jatea bata bestearen ondotik

Modesto akordeolariak giro berezia jarri zuen azken honetan

JUANA M<sup>a</sup> SAIZAR

Urte hasieratik honera, makina bat afari eta ospakizun bizi izan ditugu. Aurten inoiz baino gehiago eta horrela segitzen dugu. Martxoaren 8an, Emakumearen Eguna zela eta, afaria antolatu zen eskolako gimnasioan, gaueko 9etan eta 21 emakume bildu ziren. Oso gustora egon ziren afaltzen eta esaten zuten, "edo-



zein momentu ona da, bildu eta kontuak esateko". Eta gau horre-

tan, martxoaren 22an sagardotegi batera joatea erabaki zuten.

Larrea elkarteko zezen-jatean giro ederra izan zen. Hortan asko lagundu zuten Modesto akordeolariak eta Lizaso eta Agirre bertsolariek

Juana Mari

### Zezen-jatea

Larunbatean, martxoaren 9an, zezen-jate-

tea izan zen Larrea elkartean, 110 lagun bilduz. Hemen, ospakizuna Lizaso eta Agirre bertsolariak eta Modesto akordeolariarekin osatu zen. Oso saio polita eskeini zuten eta jendea ederki goxatu zen. Goizaldera arte dantzaldia eta ordu txiki horietan jende asko animatu zen, batzuk dantzan, farrez besteak, "Paquito chocolatero" kantarekin, etabar...



# Nafar Gobernuak fiskalaren esku utzi ditu udalaren ustezko irregulartasunak

1994ko azaroan udal idazkariak informe baten bidez salatu zituen



Emakumeek ederki pasatu zuten beraien egunean

Arg.: Joseba

JOSEBA AZPIROZ

1994ko azaroan, udal idazkariak Udalak obren adjudikazioetan egin zituen zenbait irregulartasun salatu zituen informe baten bidez: behar baino diru gehiagotan adjudikatzen ziren obra batzuk, Nafarroako Gobernutik dirulaguntza haundiagoa jaso eta horrela, beste obra batzuetan diru hori gastatzeko. Hori egin ahal izateko, "Azpiroz y Saralegi, S.L." enpresari adjudikatzen zizkioten obra guztiak eta ingeneruaren eta Nafarroako Gobernuko bi teknikari oniritzia ere behar harko omen zuten. Toki Administrazioiko sailarentzat iruzur egiteko Udalaren asmoa nabaria da eta erantzukizun penalak egon daitezkeelaren ustean, fiskalaren esku jarri du kasua.

Ustezko irregulartasun hauek gertatu ziren garaian, Herriko Etxean zeuden udal-

gizonek adierazpenak egin dituzte zenbait komunikabideetan. Juan Oronoz, orduko alkaitearen esanetan "oso lasai nago" eta "irregulartasun bakarra, Leitzaren mesedetan aritzea" izan dela aipatu du. HBko Josetxo Zabaletak, berriz, "akordioak ahobatez hartzen zirela" onartu du "idazkariak erabakiak legalak ez zirela adierazten zigun arren".

## Lurperatzailearen lana hartzeko epea martxoaren 29a arte zabalik

Lurperatzaile zerbitzua esleitu nahi du Udalak. Horretarako martxoaren 29 arteko epea zabaldu du izena emateko. Adjudikatarioak autonomotan alta emana behar du izan eta eskatzen dutenen artean zozketa egingen da aukeraketa egiteko. Urtean 300.000 pezeta or-

dainduko ditu eta subastaren lehen kontratua sei hilabetekoa izanen da (luzagarria). Lurperatzailearen oinarrizko lanak betetzeaz gain, kanposantuen txukuntasunaz eta garbitasunaz ere arduratuko da.

### NITXO ESKAERA

Bestalde, nitxoak eskatzeko epea hila-

## Irratigintza ikastaroa

Aurreko alean aurreratu genuen bezala martxoaren 22, 23, 29 eta 30ean irratigintza ikastaro bat izanen da. Honen arrazoia Leitzako Euskara Batzordeak eta Udalak irratian saio bereziak egiteko herriko elkarte eta talde ezberdinei egin dien gonbitea da. Programazioa aberastea eta herritarren parte hartzea bultzatu nahi da. Izena Udaletxean, Astizen edo Maimurren eman dezakezu.

ren 29an eguerdiko 12etan bukatuko da. Lehendik izena eman zutenek ez dute berriz eman beharrik eta erretiratu nahi dutenek berriz, Udaletxean egin behar du. Nitxo bakoitzaren balioa 120.000 pezetatakoa da eta hogeitaz eguneko epea izanen da ordaintzeko.

• Era guztietako aseguruak  
Etxerakoak, Bizitzakoak,  
Istripuetakoak, Jubilazio Planak

Huarte Gotzai 8, beheak • 31880 LEITZA  
Tel. (948) 61 09 19  
2861 Erregistro zenbakia

**GRUPO VITALICIO SEGUROS**

Elizatzte

ERLOJUTEGI  
BITXITEGIA

Nafarrentzat  
prezio bereziak

Landetxe Enparantza © 943.492698 OIARTZUN

**ttipi-ttapa**  
Gida Komertziala 96

Gida honetan zure publizitatea sartuz, egon seguru klienteak zure berri izatea errazago dutela. Aurreztu denbora eta dirua zure publizitatea **ttipi-ttapa**ren Gida Komertzialean sartuz.





**Baztan**

# Balleko Etxean euskara idatzia erabiltzeko araudia onartu da

Lehentasuna emanen zaio euskararen erabilerari, baina herritarrek aukeratuko dute zein hizkuntzetan aritu nahi duten

**JOSEBA IGARABIDE**

Administrazioan euskara idatzia erabiltzeko araudia aho-batez onartu du Balleko Etxeak bere azken batzarrean.

Euskararen Legeak eskubide hau onartzen digu 'zonalde euskaldunean' bizi garenoi, beti ere "hiritarrek zein hizkuntza ofizialetan aritu nahi duten errespetatuz". Honela, hemendik aitzina, barne eta kanporako idatziak euskara eta gazteleraz eginen ditu Balleko Etxeak, beti ere euskarari lehentasuna emanez. Seinaleak eta errotuluak ere elebidunak izanen dira, komunikabideetan egiten den publizitatea bezalaxe. Euskarak lehentasuna izanen du hemen ere.

Udal akordioaren arabera, araudi hau betetzeko eta herritarren hizkuntz eskubideak errespetatzeko udal langileen inplikazioa bilatu behar da. Kanpainaren barnean, inplikazio hau lortzeko, udal langileek sinadura sinboliko bat egitea proposatzen da, zerbitzua euskaraz emateko duten borondatea erakutsiz.



Elizondoko lanbide eskolan mekanika zikloa ematen segitu nahi dute, administrazioak nahi duen soldadura eta kalderagintzaren ordez

## Mekanika erakutsi ahal izatea eskatu dio Elizondoko Lanbide Eskolak Hezkuntza sailari

Elizondoko Lanbide Eskolak, hezkuntza ertainetan mekanika erakutsi ahal izatea eskatu dio Nafarroako Gobernuak Hezkuntza sailari, honek proposatzen duen soldadura

eta kalderagintza zikloaren ordez. Balleko Etxeak bat egin du eskari horrekin. Alde batetik arrazoi historikoenengatik, zentro honek 30 urte baitaramazki metal arloan erakus-

ten. Mekanikako ikasleentzat lan etorkizun hobe dagoela uste du udalak eta ez ezartzekotan, zonaldeko industri ikasketa profesionalak aunitz murriztuko lirateke.

## Nafarroako Gobernuak 151 milioi inbertituko ditu herrietako obretan

Nafarroako Gobernuak Toki Azpiegiturak aurtengo plangintzan sartu ditu Baztanen egin beharreko zenbait lan.

Azpilkuetako Apaioa eta Urrasun au-

zoetako karriken iskinak, Elbeteko Karrikatxar eta Erratzuko Gorostapolo auzoa zolaberritzeko 76,3 milioi pezeta inbertituko ditu. Bertzalde, Amaiurko bidea, Erra-

tzuko Apateko zubia eta Azpilkuetako Zuaztoi eta Elizondoko Iturriaga auzoetako bideak berritzeko eta Iruritan pareta bat egiteko 75 milioi terdi erabiliko dira.

*ttipi-flash*

### Arraiozko frontoiaren

proiektuan aldaketa bat egitea eskatu du herriko batzarreak. Arraioztarrek ikusleendako harmaila paratu nahi dute pareta baten ordez. Balleko Etxeak, moldaketa honen balihoa zenbatekoa izanen den galdetu dio teknikoari, Nafarroako Gobernuak subentzio haundiagoa eskatu ahal izateko.

### Felix Atxa

da 'Francisco Joaquín de Iriarte' erresidentziako batzordearen bokal berria.

### Arizkungo

saneamendu lanak Leitzako 'Azpiroz y Saralegi' enpresak eginen ditu 10.493.146 pezetan truke. Enpresa berak eginen ditu Lekaroz, Aintzano, Ariztegi, Gartzaín eta Elizondoko, saneamendu lanen ondotik moldatu beharreko karriken zolaberri-tze lanak.

**ARLA**  
**ARDOTEGIA**

Ardoak • likorrak • freskagarriak

Santiago, 56 • ELIZONDO  
© 45 32 66 (etxekoa) © 45 24 73 (bodega)

**SASKAITZ**  
fontanería  
calefacción

Empresa colaboradora de



**Era guzietako instalazioak:**  
**Etxekoak, industrialak...**

Santiago 55 • Tfnoa: 581171 • ELIZONDO



**JATETXEA**

© 580297

Pedro Axular  
ELIZONDO

**Santxotena**



# Su-hiltzaileen eta Emakumeen eguna batera ospatu ziren

Halere, bonberoek sua itzaltzera atera behar izan zuten egun seinalatu horretan



Emakumeek bezalaxe, bonberoek ere beraien eguna ospatu zuten martxoaren 8an. Azken honetan, 22 eta 82 urte arteko emakumeak bildu ziren

Argazkiak: Josu INZIARTE

Josu INZIARTE

Aurten ere Oronoz-Mugairiko parkeko su-hiltzaileek beren eguna ospatu zuten martxoaren 8an. Egitaraua 12etan hasi zen bertako elizan meza batekin eta haraino hurbildu ziren su-hiltzaile guztiak beuren kamioi eta mendiko ibilgailuekin. Meza ondotik, parkera itzuli eta hamaketakoa espero zuten. Segidan, Urgain jatetxera hurbildu ziren bazkaltzera. Arra-

tsaldean, nahiz eta su-hiltzaileen eguna izan, zenbait su itzaltzera joan behar izan zuten, suak ez baitu egun seinalatuak ezagutzen.

Hamasei su-hiltzailek osatzen dute Oronoz-Mugairiko salbamendu eta su-hiltzaile parkearen taldea eta gutienez, zerbitzuan hiru izaten dira beti, gaez ere. Neguko kanpainan, 10 behin-behineko su-hiltzaileekin osatzen da taldea. Hauei Iñaki Arrieta sarjentoa Oronoz-Mugairiko eta Burge-

teko parkeen nagusia gehitu behar zaie.

## Emakumeen Eguna

Hamar urte darimate Oronoz-Mugairiko emakumeek euren eguna ospatzen. Urtero, gero eta emakume gehiago hurbiltzen da. Aurten 36 lagun elkartu ziren Pierrresenean afaltzera, Carmen Iriartek presatutako janari goxua. Afalondoan, dantzaldi eta kantaldia izan zen Izaskun Gortari akordeolariarekin.

Goizaldera arte aritu ziren. Aipagarria da afarian parte hartu zuen neskarik gazteenak 22 urte zituela eta zaharrenak, berriz, 82 urte.

## Haize Errotak egiteko...

Baztango udalaren herri lurrak desafektatzeko baimena eman du Nafarroako Gobernuak. Lur eremua Errebelu eta Aldegiko inguruan dago eta 159.575 m<sup>2</sup> ditu. Hirutan hogeitahambortz urterako emanen zaioa EHN enpresari, errotak jartzeko.

## ttipi-flash

### ❖ Berroetako eskolako

teilatua berritzeko 500 teila eman ditu Balleko Etxeak. Lana auzolanean egiten da.

### ❖ Arraiozko saihebidetaren

proiektua egiteko 264.995.114 pezetako aurrekontua onartu du Nafarroako Gobernuak. 100 milioi aurten gastatuko dira eta gainerakoa, 1997an.

### ❖ Lur trukaketa

Aristizabal inguruan, Balleko Etxearenak ziren 1.927 m<sup>2</sup> Elias Alzuarteri eman zaizkio. Honek, trukean, herri-lur eremu zabal baten erdian zegoen bere jabetzako lur saila udalari eman dio.

### ❖ Baztandarren Biltzarrerako

kartelak aurkezteko epea apirilaren 12an, goizeko 12etan akituko da (BBelkartea, 22PK, 31700 Elizondo). 50.000 pezetako sari bakarria emanen du erpaimehaiak. Xehetasun gehiago elkartearen emanen dizuete.

# IPINGI

ZATOZ ETA IKUSI

Santiago 88, Tfnoa: 580939  
ELIZONDO

## UDABERRIKO ARROPAK

Arropak, konplementoak, bitxiak...  
*Punta-puntako moda!*



## Bierresenea

### OSTATU - JATETXEA

Jaki Tipikoak • Etxeko Giroa

Iturriotz Auzoa • ☎ 592043 • ORONOZ-MUGAIRI



Esker Onak • Urtemugak • Eskelak

### ttipi-ttapak

eskelak, urteurrenak edo esker onak agertzeko toki bat eskeintzen ditu.

Deitu gure telefonora: ☎ 63 11 88



**Urdazubi**

# Motzaneako Miguel eta Celestinak 65 urte bete dituzte ezkondurik

Bertzalde, herritar baten urteko lehen ezkontza ere martxoaren 2an ospatu ginuen

ALIZIA OLAIZOLA

Berri on bat eman behar dugu aldi honetan. Ez da aunitzetan gertatzen dena ez hemen eta ezta bertze tokietan ere seguraski.

Urdazubin otsailaren 5ean hirutan hogeitabortz urte ezkondurik egin duten bikotea dugu. Motzaneako Miguel Sagastibelza eta Celestina Gaztañaga dira, Telleria auzoan bizi direnak. Hunet 1942an etorri ziren bizitzera Huitzitik, beren bortz umeekin. Miguel Leitzakoa da eta 86 urte ditu. Celestina berriz, Uitzikoa da eta 85 urte ditu. Lau seme-alaba, 11 iloba eta 19 biloba dituzte



Miguel eta Celestinak 65 urte ezkondurik. Zorionak.

eta oraindik biak bixkor dabilta.

### Urteko lehen ezkontza

Aurtengo lehendabiziko ezkontza mar-

txoaren 2an izan zen. Herriko neska gazte bat, Itziar Galarregi, Arizkungo Angel Arozarenarekin ezkondu zen. Zorionak hauei ere. Gainera he-

rrian gelditu dira bizitzera.

### Mus txapelketa Indianoa-baitan

Indianoa-baitan, XII.

mus txapelketa hasia da. Aurten iaz baino bikote guttiago daude jokatzeko, hamar-hamabi bat, eta partidak arratsetan jokatzeko dituzte.



## AMEZTIA Jatetxea - Hostala

Espezialitatea euskal sukaldaritzan eta pintxoetan

Tfnoa: 450028 • DONEZTEBE

## BELARRA Kafetegia

*Plater Konbinatuak*

Ameztia 3, Tf. 45 03 06 • DONEZTEBE



## AROZ-BERRI

N-121-B karretera • IRURITA • ☎ 581021



## SAME Traktoreak

**SILVER** modelo berriak

*Diseinu bakarra,  
segurtasun osoa,  
Agrosbift ekin eta frenoak  
4 gurpiletan.*



**SAME Traktoreak** 45 C.V. 2.250.000 (BEZ barne) pezetatik aurrera

## LARRALDEA



## SAGARDOTEGIA

Asteartetik ortzirala Belatik aitzienerat  
Larunbata eta besta egunetan zabalik.

☎ 45 21 21 • LEKAROZ



# XIII. Euskal Idazleen Biltzarra apirilaren 13 eta 14an

Herriko Etxeko edantegiko mus lehiaketan, bertzalde, berrogoi bikotek parte hartu zuten



Mixel Saint Martin eta Jean Philippe Amorena izan dira Herriko Etxeko Edantegiko mus lehiaketaren txapeldunak

MIXEL ETA JACQUELINE

Aurtendik goiti eta ohidurari uko egin nahizik, Euskal Idazleen Biltzarra Bazko ondoko asteburuan iraganen da.

Heldu den apirilaren 13 eta 14ean beraz, betiko antolatzaileek eskaintzen daukute aurtengo hamairugarren aldia beteko duen ekitaldia, bainan jakin dugunaz, aldaketa batzuk ekarri dituzte eta horiek xeheki aipatuko ditugu hurrengoan. Egun horietan zer egin ez dakienak baduke zer irakur Saran. Iaz, 160 idazle izan ziren Saran, beraien lanen berri emanez, Iparraldeko hainbat folk eta rock taldek bezala.

## Herriko Etxeko edantegiko mus lehiaketa

Martxoaren 9an Herriko Etxeko edan-

tegian mus lehiaketa bururatu zen. Berrogoi bikotek parte hartu zuten kanporaketetan, eta hauen emaitzen ondotik lehiaketa hiru mai-

letan egin zen. Huna hemen ondorioak:

### • GOI MAILAN

*Txapeldun:* Mixel Saint Martin eta Jean Philippe Amorena.

*Txapeldunordeak:* Marie Pierre Iribarren eta Ana Indaburu.

*Hirugarrenak:* Nicolas Barreneche eta Mathieu Sallabery.

*Laugarrenak:* Kako Goyetche eta Jean Marie Pradere.

• **BIGARREN MAILAN**  
*Lehenak:* Manu Garate eta Ramuntxo Sorrondo.

*Bigarrenak:* Jean Fagoaga eta Paul Fagoaga.

• **HIRUGARREN MAILAN**  
*Lehenak:* Sandrine Goyenetche eta Isabelle Behoteguy.

Sariak banatu ondoan, hirurogei muszale bildu ziren bildots jate baten inguruan. Karta jokoan ez ezik, mahaian ongi jaten ere badakitela erakutsi zuten, noski.



**Ezkontza Erreportaiak, Argazkiak Estudioan eta Etxez etxe, Karnet Argazkiak momentuan Argazki Kamara aukera handia: Nikon, Pentax, Goko, Kodak, Fuji, QSS Pelikulak: t/b, kolore eta diapositibak: QSS, Konica, Agfa, Fuji, Ilford...**

**Argazki Erreprodukzioak, Alburnak, fotokopiak, Enkuadernazioak, Agiriaren Plastifikazioa, Fax Zerbitzua, Markoak eta Moldurak**

NAGUSIA 4 - TEL-FAX: 45 08 25 31740 DONEZTEBE

SANTIAGO 40 - TEL: 58 01 55 31700 ELIZONDO

# ANZABAL

## AGENTZIA

### Zurich Aseguruak

%50eko saria hirugarrengandako aseguru poliza kontratatzen duen edozein ibilgailurentzat.

<b>SENIOR POLIZA 50 URTETIK BEHITIKOENDAKO</b>	
CITROEN C15 MIXTA.....	40.640 Pta.
FORD FIESTA GHIA 1.8D.....	45.467 Pta.
RENAULT CLIO RT1.2.....	45.035 Pta.
<b>MASTER POLIZA 50 URTETIK GOITIKOENDAKO</b>	
CITROEN XANTIA XI.6 I.....	45.738 Pta.
NISSAN TERRANO V6.....	50.471 Pta.
FORD ESCORT GHIA 1.6.....	45.090 Pta.

Aseguru mota guztiak: Etxebizitza, istripuak, komertzioak, Jubilazio Plangintzak...  
Aurrekontua eskatu konpromezurik gabe...

**SANTIAGO 15 - Tfnoa eta Faxes: 580804 - ELIZONDO**

*M<sup>re</sup> Dolores Miñana*  
**TOPOGRAFOA**

**NEURKETA • PLANOAK**

Lur neurketak, Luberriak  
Plantazioak, etab...

☎ 580143 - 908.824464  
Santiago 68, 3. esk. ELIZONDO



**ARMUA**  
**Jatetxea**

Zugarramurdiko karretera 3. Km  
Tfnoa.: 59 91 31 - URDAZUBI

**DANBORIENA**  
**OKINDEGIA**  
**GOZOTEGIA**

© 453403 - ARIZKUN



## EZKONTZAK

Angel Arozarena Bengoetxea eta Itziar Galarregi Blanco, Arizkun eta Urdazubikoa, martxoaren 2an.

## JAIOTZAK

Francisco Javier Huaman Arribillaga, Elizondokoa, otsailaren 9an.  
Uxue Irazoki Eraso, Berakoa, otsailaren 26an.

## HERIOTZAK

Adoración Lerga Zulet, Elizondon, otsailaren 29an, 80 urte.  
Candida Etxeberria Ros, Elizondon, martxoaren 6an, 90 urte.  
Juana Azparren Garde, Elizondon, martxoaren 11n, 90 urte.  
Tomas Arraztoa Larrondo, Elizondokoa, martxoaren 10ean, 92 urte.  
Mikel Diez Bravo, Zugarramurdin, martxoaren 4an, 28 urte.  
Marie Therese Etxebeste St Martin, Sarakoa, martxoaren 7an, 83 urte.  
Marie Louise Etxeberri, Sarakoa, martxoaren 12an, 87 urte.  
Miguel Jauregi Zubillaga, Aresokoa, martxoaren 2an, 84 urte.

1996an jaiotakoei **TOPELIBRETA** 3.000 pezetarekin eta **TOPEBABERO** polit bat oparitzen diegu. Amendako "Está creciendo" liburua daukagu.

**IRUÑEKO KUTXA**  
Iruñeko Uda Auzoko Kutxa

## ZURETZAT ERRAZAGO IZATEKO, PEDRO GARMENDIAN IAT-ITV<sup>a</sup> HASIERATIK AKABERA BITARTE MOLDATUKO DIZUGU.

■ IAT-ITVaren **AURRE DIAGNOSIA** eginen dizugu estazio ofizialean erabiltzen dituzten makina berdinekin.

■ IAT-ITV<sup>a</sup> pasatu ahal izateko zerbait konpondu behar dela ikusi badugu, **AURREKONTUA DOHAINIK** eginen dizugu.

■ Aldatu behar diren pieza guzietan **%25eko DESKONTUA** eskaintzen dizugu.

Gu arduratuko gara:

- Zure etxetik autoa biltzeaz
- Tasak ordaintzeaz
- IAT-ITV ofiziala pasatzeaz
- Autoa berriro etxera bueltatzeaz

**ETA NAHI BADUZU IAT-ITV OFIZIALA EGUN BATEZ PASATUKO DIZUGU**

**PEDRO GARMENDIA, S.A.**  
Errep. z/g - Tfnoa. 58 04 31 **ELIZONDO**

**TALLERES SANTESTEBAN**  
Leitzako Errep., 1. km.a - Tfnoa 45 02 82 **DONEZTEBE**

**SEMPER HNOS., S.L.**  
Irun-Iruñea Errep. - Tfnoa. 63 06 21 - **BERA**



**RENAULT**

**EZ GALDU MINUTU BAT ERE PEDRO GARMENDIAN GUZIAZ ARDURATUKO GARA.**



## BEHARREZKO TELEFONOAK



SOS Nafarroa eta Urgentziak ..... 112/088

Osasun Zentruak

Elizondo ..... 452367 / 580235

Doneztebe ..... 450300

Lesaka ..... 637428 / 637336

Leitza ..... 510248 / 510573

**Nafarroako Ospitaleak**

Nafarroako Ospitalea .... 102100

SSko Urgentzi

Zerbitzua ..... 246750

Virgen del Camino

Erresidentzia ..... 109400

Gurutze Goria ..... 226404

**Gipuzkoako Ospitaleak**

Irungo ospitalea ..... 614600

Gipuzkoako ospitalea .... 460299

Erresidentzia ..... 453800

**Anbulatorioak**

Irun ..... 630264 / 621106

**Anbulantziak**

Oitz ..... 450242 / 450805

**DYA**

Lesaka

(Larrialdiak) ..... (943) 464622

Doneztebe

(Larrialdiak) ..... 171717

**FUNERARIA**

Doneztebe ..... 450475

Elizondo ..... 580924

Lesaka ..... 637404

**Suhiltzaileak**

Oronoz-Mugairi ..... 592255

**Garraioak**

Bidasotarra ..... 631150

Baztanesa ..... 580129

Leitzarain ..... 515018

**Aberiak:**

Iberdrola ..... 450335 / 450336

## Zortzikotea Nafarroako bertsolarien txapelaren bila igande honetan Goizuetan

Andres Narbarte 'Xalto' herriko bertsolariaren heriotzaren 25. urteurrena gogoratuko da bidenabarkoan

Lerro hauek idazterakoan hiru bertsolarik eskuratua dute martxoaren 24an, arratsaldeko 4,30etatik aurrera Goizuetako frontoiko oholta gainean egoteko eskubidea: Kexus Arzallus, Bittor Elizagoien eta Jean Pierre Mendiburu. Igande honetan, Berako finaler-



dian bertze bertz txartelen bila aritu dira Manolo eta Estitxu Arozena, Estitxu Fernandez, Xabier Silveira eta Iñi-

go Olaetxea lesakarrak, Heletako Mixel Aire 'Xalbador', Iruñeko Oskar Estanga eta Xabier Legarreta aranoa-

rra. Finalerako sailkatutako guztiak iaz Leitza Estitxu Arozenak bururatuak txapelaren bila ariko dira igandean.

## Aurtengo besta egun ofizialen egutegia zehaztu da

Santiago eguna ez da besta egun ofiziala izanen aurtengoan, Nafarroako Gobernuak adierazi duenez. Gainerakoan ez da berrikuntza haundirik izanen. Besta ofizialak eskuinaldeko laukian agertzen direnak dira.

Horietaz gain, herri herri, Herriko Etxe bakoitzak bere besta eguna eskatzeko eskubidea du.

### BESTA OFIZIALAK

Martxoak 19	San Jose
Apirilak 4	Ortzegun Santua
Apirilak 5	Ortziral Santua
Apirilak 8	Bazko Astelehena
Maiatzak 1	Langileen Eguna
Abuztuak 15	Amabirjin Eguna
Urriak 12	Espainiako Eguna
Azaroak 1	Domisaindu Eguna
Abenduak 3	San Fco. Xabier
Abenduak 6	Konstituzio Eguna
Abenduak 25	Eguberri Eguna

### Dendetako prezioek agerian egon behar dute

Barnealdean nahiz eskaparetean dauden produktu guztiek nahitaez agerian izan behar dute prezioa (PVP). Produktu eta zerbitzuen prezioak, eraberean, ongi ikusteko moduko lekuetan egon beharko dute. Hau dela eta, Nafarroako Gobernuak Kontsumo sailak komertzioetan barna inspektzioak egingen dituela jakinarazi du.

## FUNERARIA ZERBITZUAK DONEZTEBEN



**MALDAERREKA, S.L.**

24 ordutako zerbitzua  
Iruñea-Donostia-Irungo ospitaletatik edozein herritara trasladoak  
Tfnoa: 63 74 04 • LESAKA  
Tfnoa: 45 04 75 • DONEZTEBE

## MINKA

Kainabera eta zumezko mobleak



2. urteurrenean  
**ESKAITZA BEREZIAK**

Lope de Irigoien 10  
Tf-faxa 943. 611928

**IRUN**



# Baztan-Malerrekako laxoa txapelketaren XVII. edizioa igande honetan hasi da

Txapelketan zazpi taldek parte hartuko dute eta finala, eguraldiak egutegia aldatzen ez badu, ekainaren 23an jokatuko da

Arraioz, Irurita, Oitz A eta B, Doneztebe A eta B eta Zubigorri (Arraioz eta Iruritako pilotariak) taldeen partehartzearekin igande honetan hasiera eman zaio laxoa txapelketaren edizio berri bati.

Hamazazpigarren edizioa betetzen da aurtengoan eta lehenbiziko fasean talde guztiak guztien kontra jokatuko dute. Ondotik, finalerdiak ekainaren 9 eta 16an jokatuko dira, eta final nagusia ekainaren 23an. Zubigorri taldeak Iruritako plazan jokatzen duenez, igandero Iruritan, Oitzen eta Donezteben partiduak izanen direla adierazi dute Laxoa elkarteak antolatzaileek. Txapelketa honetaz gain, abuztua eta irailan kopa jokatuko da. Jubenilek ere joka-



Laxoa elkarteak prentsaurrekoa eman zuen aurtengo asmoen berri emanez

Argazkia: Karmele

tuko dute, finalak Oitz eta Arraiozko bestetan jokatuko dira, beti ere Arraiozko plaza moldatua badago. Hauexa da, hain zuzen, Laxoa elkarteak duen kezketako bat: "bere ondoren ezker paretako fron-

toia egiten ari dira eta gure kezka azaldu dugulaxoa plaza nola geldituko den. Plazarik polit eta ederrena hau da eta Arraiozko gauzarik aipagarriena, du-

katuko ditu etxeko partiduak.

Bertzalde, Baztango euskal 12 ordutan partidu bat eskainiko dute eta Elizondoko bestetan ere, aspaldiko partez, laxoa partidua jokatuko da.



Matzada futbo zelaia Bortzirietako derby berri baten lekukoa izanen da igande honetan. Gure Txokoa eta Beti Gaztek liga bikaina burutzen ari dira denboraldi honetan eta lesakarrak igotzeko aukera ederra dute Beran irabaziz gero. Halere, beratarrek, seigarren postuari eustez gain aitzinerago joan nahiko dute sailkapenean, beraz, norgehiagoka borrokatua espero da. Goizetik bi taldeetako beteranoak arituko dira eta arratsaldez txarangak arituko dira giroa berotzen.



❖ **Mikel Saralegi** harrijasotzaile leitzarra 323 kiloko harria altxatzen saiatuko da berriro igande honetan, martxoak 24, bere herriko Amazabal frontoian. Saralegirekin batera, Zelaik 138 kiloko harri kubikoarekin bost minututan duen altxaldien marka gaintzen saiatuko da. Larretxea eta Olasagastik zortzi kanaerdiko mozten lehiatuko dira. Azkenik, Areso eta Napurrak taldeen arteko sokatira saioa izanen da. Jaialdia arratsaldeko 6etan hasiko da eta, seguraski, ETBk zuzenean emanen du.

❖ **Juan Carlos Garro**

txirrindulari beratarra mountain-bike proban parte hartzera Atlantako Joku Olinpikoetara joateko aukera haundiak ditu. Aurten Gasteizko Grisley taldean ari da eta Coronas Irekiko sailkapeneko liderra da. Atlantara ailegatzeko zortea behar duela adierazi du eta behin harat iritsita, "podiora igotzeko aukerarik ez badut ere, diploma bat lor dezaket" erran du.




DATUAK.....

- ① Asier Galarregi Oieregiko borrokalariak 19 urte ditu.
- ② Judoan sei urte zituenetik aritzen da eta borroka grekoerromatarrean orain hiru urte hasi zen.
- ③ Berriki jokatu den Espainiako borroka grekoerromatar txapelketan hirugarren postua eskuratu du senior mailan.
- ④ Kirol olinpikoa izan arren, arras zail ikusten du aurten Atlantian eginen diren Olinpiadetarako deitzea.
- ⑤ 'Informatika eta Gestioa' ikasketen laugarren maila ari da egiten Iruñean.

# Asier GALARREGI: «Borroka grekoerromatarrean Espainiako hirugarrena naiz»

Asier Galarregi oierregiarra judoan gerriko beltza jantzi zuen 16 urte zituela eta adin berean hasi zen borroka grekoerromatarrean ere prestatzen. "Judoan aritzen ginen eta hasiko ote ginen galdetu ziguten. Gasteizera joan ginen, Euskadiko selekzionatzaileak ikusi gintuen eta ongi aritzen ginela iruditu zitzaion". Ez da kirol ezaguna inguru honetan eta jokoaren nondik norakoak honela azaltzen dizkigu Asierrek: "Helburua aurkakoa lurrera botatzea da. Lurrean dagoela gainean jartzen bazara puntu bat ematen dizute eta 12-Ora ailegatzen bazara borroka irabazi duzu. Bertzenaz, bi besoekin zola ukitzen badu, zuzenean irabazi duzu". Kirol honek judoaren itxura badu ere, ez da arras berdina. "Hankak ezin dituzu erabili, dena gerritik goiti da. Eskuekin ezin dituzu hankak bilatu, dena gerria eta indarra da".

Iruñeko Larrabide erresidentzian dago azken hiru urteotan. Judoa eta borroka batera eramatzen ditu Oieregiko mutilak. "Normalean judoa lantzen dugu eta



Borroka grekoerromatarretik bizitzea zaila ikusten du

borroka txapelketa bat dagoenean bi hilabete lehenago abisatzen digute". Egunero ordu t'erdiko entrenamendua izaten du eta horretaz gain, "gure gisara, fisikoa lantzen dugu". Horixe da kirol honetan behar dena, bere usitez: "Gazte-gaztetik ha-

si eta egunero entrenatzeko ohitura hartu. Teknika hartu eta gero indarra falta bazaizu pesei gogotik eman".

Nafarroako Borroka Federazioa sortu nahian dabilta, "Euskadikoan egonik, desplazamendu luze xamarak egitea suertatzen zaigulako". Galarregiren erranetan.

**NAFARROAKO JUDO TXAPELUNA**

Borrokan senior mailan estatuko hirugarrena gelditzeaz gain,

Nafarroako 21 urtez behitiko judo txapelketa irabazi berria du Donezteben 78 kilotik behitiko mailan. Halere hagitx zaila ikusten du Asierrek kirol hauetaz bizitzea: "Afizionatuak gara eta laguntzaren bat ematen badigute ere, arras ttikiak dira. Urte on batzuk izan ditzakezu, baina bizitzeko haina ez". Etorkizunari begira, beraz, ez du helburu zehatzik Galarregik, "datorrena datorrela". ■

TESTUA:  
AITOR AROZENA

► "Borrokan aritzeko gazte-gaztetatik hasi behar da eta egunero entrenatzeko ohitura hartu. Teknika hartu eta gero indarra falta bazaizu pesei gogotik eman behar zaie"



### KONTZERTUAK

#### DONEZTEBE

##### ► Apirilaren 6an

Bordatxo  
Dantzalekuan Egan.

##### ► Apirilaren 7an

Bordatxo  
Dantzalekuan  
Barricada rock taldea.

#### ELIZONDO

##### ► Martxoaren 22an

Kasinetan 'Kalma' taldea.

##### ► Martxoaren 29an

Kasinetan 'Los Rakanrolaris' taldea.

#### LESAKA

##### ► Martxoaren 22an

gaueko 11,30etan,  
Kattun, Jabier  
Muguruzaren diska  
berriaren aurkezpena.

### BERTSOLARIAK

#### GOIZUETA

##### ► Martxoaren 24an

arratsaldeko 4,30etan  
Nafarroako bertsolari  
txapelketaren finala  
frontoian.

#### SUNBILLA

##### ► Martxoaren 22an

gaueko 9etan, bertso  
afaria X. Lizaso eta I.  
Muruarekin Ulibeltzak  
elkartean.

### ANTZERKIA

#### BERA

##### ► Martxoaren 23an

arratsaldeko 5,30etan  
Txotxongillo' taldearen  
'Erreka Mari' antzesla-  
na Kultur Etxean.

### ERREZETA



## Bildots izterra errota eta onddoekin betea

#### Osagaiak

#### 2 lagunendako

- 900 gr. ko izterra • 200 gr. onddo • 200 gr. bildots errota
- ardo txuri baso bat • salda baso bat •

#### Prestatzeko modua

Izterrari hezurra kendu. Onddoak zartagi batean salteatu eta erdi eginak daudenean, gatza eta baratxuri xehetua eran-

tsi. Bertzalde, errotak, olio, gatza eta piper hautsakin salteatu eta onddoei erantsi. Guzti honekin izterra bete eta lotu betegarria atera ez dadin.

Izterra gatz-pipertu eta labe ontzi batean batean paratu olio pixka batekin. 200 gradutako labean sartu. Ordu erdi bat hone-la eduki eta ardo txuria eta salda erantsi.



Jose Gabriel  
PIKABEA

Zalain  
Jatetxekoa  
•BERA•

Behin egin eta gero, bandeja batean paratu, geratu zaigun salda-ekin. Entsalada berde batekin lagundu. On egin!

### BASERRIA



#### ❖ ZERRIKIA ❖

- Zerrikumea (20 kilokoak): 7.000 pzta.
- Zerri gizona (95-100): 175 pzta./kilo
- Zerramak: 120-125 pzta./kilo bizirik.



#### ❖ BEHIKIA ❖

- Aretze gizenak:
  - Idixkoak: Pzta./kg. Kanal
- |             |     |
|-------------|-----|
| Extra ..... | 560 |
| 1.koa ..... | 550 |
| 2.koa ..... | 530 |

- Urruxak: Pzta./kg. Kanal
- |             |     |
|-------------|-----|
| Extra ..... | 580 |
| 1.koa ..... | 550 |
| 2.koa ..... | 530 |
- Oharra: Prezio hauek 300-340 Kg. kanalean dauzkaten idixko eta 200-250 kg. dituzten urru-xentzako.
- Aretze ttikiak (15 egun ingurukoak):
  - Nabarrak: urruxak 18.000 eta idixkoak 26.000 Pzta.
  - Mestizoak: urruxak 30.000 eta idixkoak 38.000 Pzta.
  - Behi zaharrak:
  - Behi nabar gizona: 380 Pzta./Kg. Kanal. Behi gorri ona: 430 Pzta./Kg. Kanal.

DATU ITURRIAK: EHNE,  
ZUBIRIA MINDEGIAK...




#### ❖ FRUTONDOAK ❖

- Hiru urteko landare bakoitza
- Bertako sagarrondoak 950.
  - Udareondoak 950 pzta.
  - Gereziondoak 1.050 pzta.
  - Aranondoak 1.050 pzta.
  - Muxika 880 pzta.
  - Urritza 880 pzta



#### ❖ LANDAREAK ❖

- Porrreak zientoa 400.
- Tipulak zientoa 800.



© 948-451771



## ZUBIRIA MINDEGIAK

- Etxeak apaintzeko landareak
- Baso landareak
- Bertako frutondoak

ARRAIOZ • NARBARTE

Tfnoak: 452032 (bulegoan) • 592034 (etxean)


Faxa: 581274



## KONTSUMITZAILEENDAKO AHOLKUAK

### Kable bidezko Telebista

Sistema hau, antenak batu edo elkartzearen ondorioa da. Lehen etxeak antenaz beteta ageri ziren. Hurrengo pausoa antena kolektiboak izan ziren eta azkenekoa kable bidezko telebista da.



Herri ttikietan, kable bidezko telebistaren instalazioa antena kable arrunt batekin egiten da normalean

Errepetidoreek gero eta kanale gehiago jasotzen dituzte eta saturatzera edo asetzerara ailegatzeko ari dira. Honela, zaila da kanale ezberdinak behar bezala sintonizatzea.

Kable bidezko antena jasotzailea leku egokienean jartzen da seinale ona bidaltzeko eta bertatik etxetara kable bidez eramaten da seinale hori. Sistema egokia da antenek duten inpaktu estetiko herrietatik desagertarazteko. Gaur egun TB seinalea kaxkarra duten lekuetan arazoa moldatuko litzateke eta herri telebistak osatzea eta seinalea igortzea errazagoa izanen zen. Sistema honekin bertze hainbat zerbitzu eskaini daitezke, kontadoreen irakurketak, adibidez. Kable bidezko telebistaren instalazioak modu publi-

koan edo modu pribatuan egiten ahal dira. Modu publikoan, hau da, Nafarroako Gobernuaren laguntzarekin, Elizondoko Txokoto eta Igantziko Berrizaun auzoetan egin dira. Modu pribatuan, berriz, engantxea eta mantenimendua ko-bratzen zaie interesatuei. Instalazio hau, antena kable arrunt batekin egiten da

normalean, batez ere herri ttikietan edo kilometro gutti dauden tokietan. Hiri haundietan edo instalatzeko kable kilometro aunitz daudenean, aldiz, fibra optikoa erabili ohi da. Fibra optikoaren bidez, seinale gehiago eta kalitate hobegokoak igortzen ahal dira gure etxetako telebista aparagailuetara.

### TB PRIBATUAK (A3, T5, C+)

*Bortzirietan kate pribatuak martxan paratu berriak direla eta zenbait problema sortzen ari dira, kate frantsesetatik hagitx hurbil baitaude zenbait kasutan. Gaizki ikusten bada, antenatan zenbait moldaketa egin behar dira.*

#### Bortzirietan

Tele5: 59. kanalean. A3: 55. kanalean. C+: 62. kanalean

#### Malerrekan

Tele5: 54. kanalean. A3: 52. kanalean. C+: 30. kanalean



## BORTZIRI

ASISTENTZIA TEKNIKORAKO ZERBITZUA

Tfnoa: 63 10 91

Iturlandeta, 1 • 31780 BERA

### GISA GUZTIETAKO ANTENEN INSTALAZIOA:

- Kolektiboak
- Indibidualak
- Satelite bidezkoak

**Aurrekontuak  
kompromisurik  
gabe eskatu**



Instalatzailer Baimendua

**Televés**

Instalatzailer Ofiziala

## AGENDA EGUNEZ EGUN

### ZINEA

#### DONEZTEBE

► **Martxoaren 23-24an** zine aretoan 'Pret a porter'.

► **Martxoaren 30-31n** zine aretoan 'Semillas de rencor'.

### MENDI IRTEERAK

#### ELIZONDO

► **Martxoaren 24an** Baztango Mendigoizaleak Zugarramurdira irteera.

► **Martxoaren 31n** B. Mendigoizaleak Elizondo-Elizondo.

► **Apirilaren 7an** Baztango Mendigoizaleak Bankara.

### KONTZERTUAK

#### SUNBILLA

► **Martxoaren 23an** gaueko 12etan, frontoian 'Iguana y los jumiles' eta 'Addis Abeba'.

► **Martxoaren 24an** gaueko 11etan, Fondan 'King Mafrundi'.

### GUARDIAKO BOTIKAK

► **Martxoaren 18tik 24ra** Arantza, Doneztebe, Elizondo (Iturralde) eta Goizueta.

► **Martxoaren 25tik 31ra** Igantzi, Sunbilla, Elizondo (Lezaun) eta Goizueta.

► **Apirilaren 1etik 7ra** Lesaka, Ituren, Elizondo (Iturralde), Goizueta eta Leitza.

► **Apirilaren 8tik 14ra** Bera, Narbarte, Elizondo (Lezaun) eta Goizueta.



## ETXEBIZITZAK

**LESAKA.** Albisturkarrikan bajera alkilatzeke. ☎ 637948.

**BERA.** Bi solairuko etxea eta 1.000m<sup>2</sup>ko lur eremua salgai. ☎ 631422. Prezio negoziagarria.

**LESAKA.** Pisua alokatuko nuke, hobe mobleztatua baldin bada. Pertsona barentzat. ☎ 943-456644 (eguerditan).

**BETELU.** Baserrira salgai, 7.000 m<sup>2</sup>ko lur eremuarekin. ☎ 234830.

## DENETARIK

**Kartelak,** buzoiratzeke paperak, bisita txartelak, Faktura taloiak... egiten ditugu. Merke eta azkar. ☎ 631188.

330 litroko **esne tankea** eta 16 toneladako kupoa salgai. ☎ 631038.

**Akumuladore estatikoa** Fagor markakoa salgai, 3'2 Kwkoa, 6 auxiliarekin, estreinatua gabea eta hagitz prezio onean. ☎ 627642, arratsaldetan.

**Erlojua** galdu nuen Lesakan, inauterietako larunbat eta igande arteko gauean. ☎ 637964 (Igantzi).

**Ezkurran erretako** base-rikoeak (Etxeberriakoborda) belar idorra erosi nahi dute. ☎ 451518 (Ezkalo). Laguntzak eskertuko dira.

**LESAKA.** 60 m<sup>2</sup>ko lokala salgai. Edozein gauzeta-rako prestatua. Merke. ☎ 637453.

**Kanposantuko** hilarriak aseguratzen ditugu. ☎ 631052.

**Parapente** bat, 301 markakoa, berri-berria (20 hegaldirekin) salgai ekiposorearekin. 150.000 pezeta. ☎ 637987 (gaueko 8etatik

10etara).

**Latinezko** klaseak hartu nahi ditut. ☎ 631499.

**Terrenoa** erosi nahi dugu Mallerreka edo Baztanen. ☎ 393067.

Bigarren eskuko **sukalde** bat, ahal bada gasa eta elektrikoa behar dut. ☎ 637836 (arratsaldeko 8,30etatik aitzinera).

**Borda** bat erosiko nuke bere terrenoarekin. ☎ 451774.

Batille markako **enpakadora** salgai, arras ongi dagoena. 2,10 metro zabal. ☎ 592016 (Javier)

**Emakumeendako** erloju bat galdu dut Beran mar-txoaren 8an, Agerra auzotik Euskaldunako bidegurutzeraino tartean. ☎ 630253 eta 630177.

## IBILGAILUAK

**Bi kotxe** salgai. Citroen C15 diesela, NA-AD matrikuladuna eta Opel Corsa 1.2 Superra, SS-W matrikuladuna. ☎ 510558 edo 510460.

**Audi** **VW** **SAMPI ARAGON**

Bigarren eskuko autoak, furgonetak eta mendiko autoak erosiko nituzke. Eskura ordaintzen da.

☎ 45 03 54 • DONEZTEBE

**Seat 127** salgai. 50.000 pezeta, egoera onean. ☎ 397032 (gaueko 10etatik aurrera).

**MENDAUR MOTOR**

☎ 450333 • DONEZTEBE

Zenbait **Suzuki**, eta **Land Rover 88 Turbo** eta **Peugeot 205** bat ere. Bigarren eskuko autoak.

**Citroen C15 Club** salgai, 7 urte eta 155.000 km., egoera onean, gasolinakoa. ☎ 393067.

## AZIENDAK

Bi urteko **aharia** salgai, mutur gorria. ☎ 451696.

Boxer arrazako **zakurrak** salgai Beintza-Labaienen. ☎ 450679.

Huskysiberiar arrazako **txakurra**, urtebetekoa, salgai. ☎ 514040.

Zubieta eta Iturengo inauteren ondotik **bekada zakur** beltz gaztea agertu da Aurtizen. ☎ 450179.

Mendiak errepoplartzeko **konejoak** salgai Elgorriagan. ☎ 450952 (gaueko 8etatik aitzinera).

**Pastor aleman** arrazako zakur eme baten atzetik nabil, nere zakurrearekin elkartzeko. ☎ 637218 (eguerditan).

## LANA

**Bi lagun** mendiko lanetan aritzeko prest. ☎ 510035.

**Gazte** batek lan egingen luke kamioi gidari gisa edozein lanetan. ☎ 580540.

**Neska batek** lan egingo luke zaharrak eta haurrak zaintzen edo etxeko lanetan. Esperientziarekin. ☎ 637911 (Edurene).

## AGURRAK

**Arizkungo** Esther M.ri: Egun batez Ainhoa eta zu agertu zineten hemen. Badakigu zuk jarri zenuela. Aski duzu bertzeen gauzak jartzeaz.

**Narbarteko** Jaioneri: zerbait erran behar baldin baduzu aurpegira erran. Neska baten partez.

**Goizueta.** Bihotza duen pertsona baten partetik: Karnabaletan aritu den Etzakit taldeari antolatzaileek egin diotena ez da inoriegiten, ez dute horixe merezi. Agindutako dirua gutxienez pagatu behar zieten.

**Zorionak 28:** Noizko da txanpaina? Ea noiz atakutzen duzun, eh? Hurrengo bestetan, faltarik gabe. 25 eta 31.

**Lesakako** Aitziber Ubirari: oso ona zaude. Muxu bat ezagutzen duzun mutiko baten partez.

**Zoriondu** nahi genuke gure gurasoei, Jose Mari eta Engraxi, 23 urte ezkondu-ta bete dituztelako. Ongi pasa zuen eguna. Alaben partez.

**Igantzi**ko Izaskun T.ri: zer da besteen mutikoak kentzeko duzun afizio hori? honela jarraitzen baduzu, lagunak galduko dituzu.

**Erratzuko** Agurtzaneri: zorionak zure lagunaren partez marxoaren 5ean zure urtebetetzea izan zela eta.

**Berako** ikatolako 7. mailako Asier eta bere konpainiari, Etxalarko neska bartzuren partez hagitz onak zaudetela.

**Leitzako** Begoña I.ri oso guapa zara eta zutaz maitemindurik nago. Mikel S.

**Ezkurrako** Bautista M. rentzat: Ezkurrako neska batek asko maite duela eta

**Eratsungo** J.M. beste neska batek maite duela.

**Besarkadarik** beroena euskal preso guztientzat, bereziki Oiarzun eta Bortzietakoentzat.

**Andoni.** Kubako puroak faltsoak dituk. Oraingo lentes ez dituk bezperatik uretan kontu behar. Gora gu ta gutarrak. Gautxori.

**Aurtengo inauterietan** ere batzuk falta ziren. Inñaki, Josu, Sebas, Joxelu eta Patrizio Hotel batzuetara joan omen dira. Hori aurpegia zuena! Gautxori.

**Aita:** Ea abudo sendatzen zaren gure artera etortzeko, ospitale horretako paretek kolore argia eduki arren, iluntasuna baitakarte barrenera. Bihotzez, Itxekuk.

**Mugaireko** Mikel Brañari: zure lagun baten partez, zorionak.

**Leitzako** Javier Ariztimuñori: maitemindurik gaude. Leitzako hiru neskeren partez.

**Ojala** Maitane Telletxearen taldeak irabaziko badu kantu txapelketa. Sara eta Lourdes Agirre.

**Elizondoko** Asier Ormarti: arrunt ona zaude eta aspaldi honetan zutaz maiteminduta nago. Muxu bat zure ezpain goxo horietan. M.Z.L.

**Lesakako** mutil baten partez Patrizia Errandonea hagitz ona dagoela.

**Arraiozko** Asier Larretxeari: marxoaren 22an zuretzat egun zorionsua izatea nahi genuke. Zure aita, ama eta Garikoitz anaia- ren partez.





# EZKALO

Jose Antonio Elizondo Jauna • APJ 129

INFORMAZIOA: 451518 (Doneztebe) • 23 48 30 (Iruñea) • 908. 77 76 96 (Mugikorra)

Larunbat eta igandetan zabalik ordua eskatuz gero



### Legasa.

90m<sup>2</sup>ko pisua salgai 6.800.000 Pta.  
30m<sup>2</sup>ko bajera salgai 2.800.000 Pta.  
Pisu mobleztatua alokatzen da:  
35.000 Pta./hilabetean.



### Narbarte.

Luxu handiko etxebizitza mobleztatua salgai: 10.300.000 Pta.  
90m<sup>2</sup>ko pisua salgai 7.200.000 Pta.  
60m<sup>2</sup>ko bajera salgai 3.800.000 Pta.

**Oieregi.** Luxu handiko etxebizitza, 4 logela, 2 bainu, sukaldea muntatu, egongela tximiniarekin, garajea, kalefakzioa, lorategia. 17.000.000 pezeta negoziagarriak.

**Arraioz.** Erreka ondoan borda salgai.

**Irurita.** Borda bat salgai leku eguzkitsuan. Bertze borda bat salgai erreka ondoan. Apartamentua salgai 6.500.000 pezetat.



**Ziga.** Egoera onean dagoen borda salgai.

**Zubieta.** Luxu handiko etxebizitza salgai, kalefakzioarekin 8.500.000 pezetat.

**Elbete.** Etxe mobleztatua salgai bere garajearekin.

**Beintza-Labaien.** Lozabian auzo-

an, erreka ondoan dagoen borda bere 3.000m<sup>2</sup>ko lur eremuarekin salgai.



**Eratsun.** Borda alokatzen da 12.000 Pta./hilabetean.


**Beintza-Labaien.** Lozabian auzoan, erreka ondoan dagoen borda bere 3.000m<sup>2</sup>ko lur eremuarekin salgai.

**Doneztebe.** Zinearen ondoan luxu handiko pisuak salgai. Odroizolaren etxean luxuzko pisuak.


**Igantzi.** Etxe bat bere lorategiarekin alokatu edo salduko genuke.

**Doneztebe.** 80m<sup>2</sup>ko bajera komertziala 100m<sup>2</sup>ko baratzearekin salgai. Prezio negoziagarria. Apartamentu mobleztatua alkilatzen dut, 45.000 Pta./hilabetean.

**Elizondo.** Baserria 20.000m<sup>2</sup>ko lur eremuarekin salgai.



**Bera.** Legia karrikan 170m<sup>2</sup>ko bajera terrazaduna salgai, 22.800.000. 60m<sup>2</sup>ko apartamentua salgai, teilatu azpian 32m<sup>2</sup>ko duplex-a duena, 10.950.000 Pta. 69m<sup>2</sup>ko apartamentua salgai, teilatu azpian 31m<sup>2</sup>ko duplex-a duena, 11.700.000 Pta.



**Ezkurra.** Borda eta 2.000m<sup>2</sup>ko lur eremua salgai.

## JUAN LARREGI

### BITXO

Santiago karrika, 10 • ☎ 58 08 98 • ELIZONDO

### HESI MOZTEKOAK



Motore elektrikoarekin

Gasolinazko motorea

### SOROPIL MOZTEKOAK



PROMOZIOA

### MOTO-AITZURRAK

PROMOZIOA



ORAIN  
70.000 Ptatik.  
goiti

### SASI MOZTEKOAK



HUSQUVARNA - PARTNER

PROMOZIOA

STHIL  
JON SERED  
eta marka Japoniarrak ere  
saltzen ditugu



LARUNBATA

APIRILAK 6

IGANDEA 7


# EGAN

# BARRICADA

# BORDATXON



DONEZTEBE - NAFARROA



## Hiru hitzetan: Polo. Diesel. Berria.

...orain Sampi Aragonen

1.656.000 Ptatik. aitzin



Volkswagen

### SAMPI ARAGON

Leitzako errepidea • © 450354 / 450759

D O N E Z T E B E